Kitto ...eta!

2017-VI-22

1.021 zkia.



# Goazen Sanjuanak haundi egitera!

EUKi

LAN, LEGE ETA ZERGA AHOLKULARITZA

www.euki.com

Tfnoa. 943 20 42 91

*Sanjuan zoriontsuak opa dizuegu!*



# CRF AMOSTEGI

## ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA




* ERREHABILITAZIOA
  - Osakidetza - Aseguruak
* FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA
  Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrekuentzia) / Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)
  E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra
* HAURDUNEN OSASUNARENTZAT ETA ERDIONDORAKO DENETARIK
  - Amatasunerako prestakuntza:
    Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)
  - Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea
  - Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodinien... esku-tratamendua
  - Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan
  - Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen orbainentzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.
  - Antzutasun funtzionalaren tratamendua
* MEDIKUNTZA ESTETIKOA
  - Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez
  - Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia
  - Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)

Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegui.com www.crf-amostegui.com



Beittu Zentro Optikua

R.P.S. 253/14

J. Etxeberria, 13
943 700 230

Ondo pasau Sanjuanetan!



Audifonoak

Probatu doan
Konpromiso barik

...eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**
Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA**:
J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**
Maialen Belaustegi.

**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**
Ana Aizpurua

**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.200 ale.

**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

2015 Bikain

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

*EIBARKO UDALA*

*GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# eskutitzak

## – ARITZ IRIONDOREKIN BAT EGINEZ –

Ekainaren 14an Unbeko instalazioetan Foball-7 Torneoaren barruan gertatukoaren inguruan, lehiaketa horretan parte hartzen duten taldeetako ordezkariek eta Eibar eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuek honakoa adostu dute:

1- Aritz Iriondori gure elkartasuna adieraztea jokalari batengandik jasotako erasoaren aurrean.

2- Gertatutakoa gogorki gaitzetsi eta arbuiatu, deitoratuz jazotakoak arriskuan jartzen duela torneo horren jarraipena, jakinda, gainera, bere helburuetako bat kirolean kidetasuna eta errespetua sustatzea zela.

3- Torneoaren edizio hau bertan behera lagatzea, Aritz Iriondorekin bat egiten dugula adierazteko.

4- Torneoaren epaileekiko elkartasun eta kidetasun adierazgarri, ekainaren 20an, martitzenean, partidua jokatu genuen Unbeko zelaian, talde parte-hartzaile guztiekin eta Eibarko eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatoen parte-hartzearekin, bertan Kirolaren familia guztia eta komunikabide guztiak parte hartzera gonbidatuz.

EIBAR ETA ELGOIBARKO FOBALL-7 TORNEOKO ANTOLATZAILE ETA TALDE PARTE-HARTZAILEAK

## Bixamona hilaren 28an, eguaztenean

Datorren astean **Bixamona** Sanjuanetako argazkiak jasotzen dituen ale berezia kaleratuko dugu **eguaztenean, hilaren 28an.** Hurrengo ale "normala" **uztailaren 7an** izango duzue esku artean, eta horri jarraituko dioten beste birekin (**uztailaren 14an eta 21ean**) amaituko dugu ikasturtea.

ERREDAKZIOA

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LORDIÑA**.- Zikinkeria, mantxa. *"Gaur gizonak eiñ dau bazkarixa, eta sukalde jiran bazan lordiña".*
**LORITUA**.- Ezertaz konturatzen ez dena, tentel samarra. Erderazko ***'despistado'***. *"Ezeren kontuan jausten ez dan loritua dozu semiori".*

## astean esanak

"Ezkertiar antiklerikalen artean puritanismo olatu bat dabil islama tartean dagoenean, errespetu akritiko eta ia mistikoa, hedabide ezkertiarretan irakurtzeraino hilekoarekin ez dela ramadaneko baraurik egiten, atzean dagoen purifikazioaren ideia misoginoa ahaztuta. Euskal Herria ezagutu gura duenarekin sekula ez genuke hitzordua elizan jarriko, baina meskitei leku egokia deritzegu `besteengana hurbiltzeko´. `Haiei´ erlijioaren kontrol soziala egitea zilegi balitz legez"
*(URTZI URRUTIKOETXEA, KAZETARIA)*

"Homeopatiak emaitza berberak ematen ditu kosteetan %20 gutxiago gastatuta. Berritsu batzuk garela diotenek azken ikerketei erreparatzen diete. Gainera, ez dakit medikamentu homeopatikoak zergatik sal daitezkeen farmazietan eta medikuek ezin duten errezetatu; ahaztu gabe mediku homeopaten %90ek Osakidetzan egiten dutela lan. Ingalaterrako Isabel II.a erreginaren medikua naiz, 91 urte ditu eta lanean dihardu. Haren amak 101 urte hartu zituen. Eta Karlos semeak behiekin ere erabiltzen du homeopatia: antibiotikorik erabiltzen ez duenez, ez du zertan esnerik bota behar izan"
*(PETER FISHER, ROYAL LONDON HOSPITAL)*

"Latinoamerikako Siria bihurtu nahi dute Venezuela, bidea antzekoa baita. Oposizioak dioenaren kontra, chavisten kontrakoa da jazarpena. Hildakoak, eta nola gainera, bizirik su ematen... Sirian, Libian eta Iraken ikusi da hori. Soldaduak armekin daude, baina tiro egiteko baimenik gabe, eta jendea denetarik botatzen dabil. Bazukeekin erasoak, armamentua lapurtu, paramilitarrak, Kolonbiako mugatik sartu eta ateratzen direnak... Gobernuaren erantzuna neurrizkoegia izaten ari da: ez dago munduan beste armadarik horrelako erasoen aurrean horrela erantzuten duenik"
*(CARLOS AZNAREZ, "RESUMEN LATINOAMERICANO")*

## EKAINAK 23, BARIXAKUA

**10:30ean** Ospitalean, **Santuari zapia** jarriko zaio.

**11:00etan** Untzagan hasita, Sanjuanetako **Zortzikoa**, Usartza Txistulari Bandaren eskutik eta musikarien laguntzaz.

**12:00etan** Untzagan, **koadrilak** bildu, eta Ustekabe fanfarrearekin **kalejira** Urkizuraino. GASTE Elkarteak antolatuta.

**13:00etan** Estaziño kalean, **ongietorria Lizarrako Dultzaineroei**, eta **kalejira** Untzaga plazaraino Udalbatzak, Ipurua Gimnasia Erritmika taldearen, Ballet Eibarrésaren, Noricaren eta Asociación Armeraren ordezkariek eta koadrilek lagunduta.

**13:30ean** Udaletxetik, **pregoia** eta jaiei hasiera emateko txupinazoa.

**13:45ean** Udaletxean, Sanjuanetako kartel lehiaketa eta alkohol gehiegikeriaren kontrako pegatina lehiaketen **sari banaketa.**

**17:30etik 20:30era** Urkizun, Umeentzako **puzgarriak**.

**17:00etatik 21:00etara** Untzagan **Klarionez** tailerra: Sanjuanetako munduko kartel handiena, Lekim Animazioen eskutik.

**17:30ean** Untzagan, koadrilak bildu eta **kalejira** fanfarrearekin zezenplazaraino.





info@gerritek.net
www.gerritek.net
SOLUZIO INFORMATIKOAK
Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta
Neurrira egindako software-aren garapena
Gerritek INFORMATIKA
Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

AMAÑA FONTANERIA
■ Kalefakzio Instalazioak
■ Sukaldeak eta Bainuak
■ Galdara eta Berogailuen Instalazioak
■ Butano, Propano eta Gas Naturalaren Instalazioak
■ Azterketa eta Proiektuak Ordenadorez
■ Aire egokitua
T. Anitua 12
Telefonoa. 943 201 930
fonta.amana@gmail.com

**18:00etan** Zezen plazan, koadrilen arteko **jokoak**.

**19:00etan** Untzaga plazan, Japoniatik etorritako **Tokyo Brass Style** bandaren emanaldia.

**19:00etan** Urkizutik, **Lizarrako erraldoi eta buruhandi**en kalejira Lizarrako Dultzaineroen laguntzarekin.

**19:00etan** Untzagatik, **Irulitxa** fanfarrearekin kalejira.

**19:00etan** San Andres elizan, **Salbea** Parrokiako abesbatzarekin.

**19:00etan** Ego-gain kalean, **"Sefini"** kale antzerkia Trapu Zaharra konpaniarekin.

**23:00etatik 04:00etara** Untzaga plazan, berbena **Lisker** taldearekin.

**23:30ean** Untzagan, **San Juan Sua** eta Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia, ...eta kitto! elkartearen eskutik, eta Queimada, As Burgas Casa Cultural de Galiciaren ardurapean.

**00:00etan** Untzagan **San Juan Kantua** eta jarraian **Danborradaren Alardea**.







trinmer

*Telekomunikazio Instalaziorako Enpresa*
*-*
*1.305 zkia.*

TB seinalea jasotzeko antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB / TB digitala
Teledistribuzioak
Konponketak eta mantenimendua

tdtrinmer
www.trinmer.com
www.trinmer.com
Ego-Gain, 2 Bac • Tel: 943 127 350

Funeraria·Ehorztetxe
Mugica

EIBAR | ELGOIBAR





Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean




24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi

## EKAINAK 24, ZAPATUA

**08:30ean** **Kalejira** Lizarrako Dultzaineroekin.

**11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara** Untzaga Plazan, "Xic del Xurrac" jolas parkea. **Tomb Creatius** antzerki taldearen eskutik.

**11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara** Untzaga Plazan, **"El viaje"** antzezlana. Tomb Creatius antzerki taldearen eskutik.

**12:00etan** San Andres parrokian, **meza** kantatua Parrokiako abesbatzarekin.

**12:45ean** Untzaga Plazan, Ertzantzaren Musika Bandaren **San Juan Kontzertua**.

**13:30ean** Untzaga Plazan, **"Alzheimer aurkako etorkizunen kilometroak"** karabanari ongietorria. Antolatzailea: Asociación El futuro es la memoria.

**16:00etan** Arraten, **San Juan tiro txapelketa** nagusia usakumeekin. Antolatzailea: Sociedad de Tiro al Vuelo.

**17:00etan** Astelena frontoian, **Pilota** jaialdia.

**18:30ean** Untzaga Plazan, "Walkman" ikuskizuna **Ganso** taldearen eskutik.

**19:00etan** Urkizun, **Umeen Danborra**daren irteera, Ustekabe fanfarrearekin.

**20:30ean** Untzagan, **umeen pregoia** Umeen Danborradako Danbor Nagusiak irakurrita, eta Alardea.

**22:00etan** **Erromeria** Untzaga plazan, Jainaga eta Narbaizaren eskutik



GURIA
ELECTRICIDAD
MUNTAIA ETA PROIEKTU ELEKTRIKOAK
Matxaria, 2 - Pabellón 7 • Telf. : 943 70 08 95 • Fax: 943 82 00 27
www.electricidadguria.com • 20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Arregi - Dominguez
ARRAINDEGIA
Bidebarrieta, 4
943 20 11 38
Ego-Gain, 9
943 20 32 09
Ondo pasa
Sanjuanetan
Mariskoak
Arrain freskoa eta izoztua
Enkarguak hartzen ditugu
Ondarruko arraina

**23:30ean** **Soka Dantza** Untzaga plazan, Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldearekin.

**00:00etan** **Suzko erroberak** Caballer Fx Pirotecniaren eskutik.

**00:15etik 03:00etara** Untzaga Plazan, berbena **Jamaica Show** orkestrarekin.

**00:00etatik 03:30era** Untzaga Plazan, alkoholaren prebentziorako karpa **SASOIA**ren eskutik.










www.kolorlan.com
667 54 89 16
KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

CCOO
euskadiko langile komisioak
www.ccoo-euskadi.net
Mugitu zaitez!
MURRIZKETA SOZIALEI EZ!!!
Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es

BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA
Eguneroko ogia
☎ 943 20 40 66 (Errebal) ☎ 943 20 36 06 (Legarre)



Mail
Herramientas Especiales de Corte
Apalategi, 4 - 20600 EIBAR • Tel: +34 943 70 70 50
e-maila: mail@industriasmail.com • www.industriasmail.com

## EKAINAK 25, DOMEKA

**08:30ean** **Kalejira** Lizarrako Dultzaineroekin eta goiz-erestia.

**11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara** Untzaga Plazan, “Circomatik” jolas parkea **El Negro y el Flaco** antzerki taldearen eskutik

**11:30ean** San Juan XXIV. **marmitako lehiaketa**, Untzaga plazan.







**13:00etan** Untzaga plazan, **Txistulari Alardea** kontzertua. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako txistu ikasleek, Molto Vivace boskoteak, Sostoa abesbatzak, Lizarrako Dultzaineroak, beste herrietako txistulari taldeek eta Kezka Dantza Taldeak parte hartuko dute, gitarra, soinua, perkusioa eta txalaparta soinuekin lagunduta.




**18:00etan** Urkizutik, Bilboko ONDALAN konpartsarekin **erraldoi eta buruhandien kalejira** Lizarrako Dultzaineroen laguntzarekin.

**18:00etan** Untzagatik, kalejira **Africa Baj Yay** taldearekin.

**19:00etan** Untzagatik **Imperial Elegancia Mejicana** mariachiaren callejoneada.

**19:30ean** Untzagan, **BANDtzaldia** - erromeria Eibarko Cielito Musika Banda, Aiko Taldea eta Kezka taldeen eskutik.

**22:00etan** Untzagan **Imperial Elegancia Mejicana** mariachiaren emanaldia.

**23:00etan** **Suzko erroberak** Pirotecnia Valecearen eskutik.

natural
BIO • DENDA
JANARIDENDA EKOLOGIKOA
Elikadura TXARRA denean medikuntzak ez du funtzionatzen
Elikadura ONA denean medikuntzarik ez da behar
- Esaera Ayurveda
www.naturalbiodenda.com
www.facebook.com/naturalbiodenda
Bidebarrieta, 6
943 56 71 59

EIBAR sofás
Karmen, 15
943 531 261 / 688 669 479
SOFAK ETA KOLTXOIAK
astelehenetik zapatura
10:00-13:00 eta 16:30-20:00
ASTELEHEN GOIZETAN ITXITA
1.620 € (relax elektrikoko bi sistemekin)





# IRAZABAL

clínica dental





**Ainhoa Zulueta**
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
**Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian.
**Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa. Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Aníbal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara
**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

## Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**Facebook**en: Clínica Dental Irazabal   Eta **twitter**en: @ClinicaIrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** **Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. GALDETU**

IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

## EKAINAK 27, MARTITZENA

**16:30ean** Karmen kaleko parkean, umeendako **txokolate-jana**.

**17:00etan** Karmen kaleko parkean, **umeendako jokoak.**

**19:00etan** Karmen kaleko parkean, **Gorriti** eta bere abereak. Antolatzailea: Beheko Tokia.

## EKAINAK 28, EGUAZTENA

**12:00etan** Karmen kaleko parkean, **toka eta igel-toka txapelketa**.

**18:00etan** Karmen kaleko parkean, **Mariachi DOMÍNGUEZ** taldearen emanaldia.

**19:00etan** Dario Fo-ren **"Pareja abierta" antzezlanaren** emanaldia. Ernesto Barrutia eta Isabel González-en eskutik.



**20:00etan** Karmen kaleko parkean, **Kaleetan Kantuz** taldearen emanaldia.

**21:00etan** Beheko Tokian, Kaleetan Kantuz taldeari **ongietorria** eta piskolabisa.

**21:30ean** Karmen kaleko parkean, **dantzaldia Tukan** taldearekin. Antolatzailea: Beheko Tokia.



## EKAINAK 29, EGUENA

**12:00etan** Carmen Parrokian meza, **Gospel Bilbao** ahots taldearekin.

**13:20ean** Karmen kaleko parkean, **toka eta igel-toka txapelketa**ren sari banaketa eta piskolabisa. Antolatzailea: Beheko Tokia.

## UZTAILAK 1, ZAPATUA

**16:30ean** Untzaga Plazan, **Eibarko Hiria XXXIII. xake partida** azkarren txapelketa, Jose Mari Kruzetaren Oroimenez. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.

---

Laguntza Teknikorako
Zerbitzu Ofiziala
EIBARSAT
*Etxetresna elektriko txikien eta mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, tresneria txikien piezak...*
IFAR KALE 8
Tel./Faxa. 943 20 67 17
20600 EIBAR

San Andres Gozotegia
tartak
enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

KLUB DEPORTIBOKO
TABERNA ETA SUKALDEA
HARTZEKO DEIALDIA
Interesatuek 665 726 146 telefono zenbakira deitu dezakete edo
info@deporeibar.com helbidera idatzi


Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak
Khôl
Estilistak
Estaziño, 4 943 254776

# Ondo pasa Sanjuanetan!!
























# san juanak
eibarko txosnetan

## 22 osteguna
18:30 AKEBAI ekimena
21:30 txosnen irekiera
22:00 Erromerixia

Erokomeri

## 23 ostirala
**X.GAZTE EGUNA**

11:00 Untzagan
11:30-12:30 Kamiseta banaketa
13:00 Txupinazua
13:30 Trikipoteua guriditik
15:00 Bazkaria
17:00 Jolasak
**mojito jaia**
23:00 San juan sua!
23:30 Kontzertuak

Kdoan
HARA! adikzioak, minak eta desirak
La Basu

## 24 larunbata
**MOZORRO EGUNA**

14:30 Euskal Preso eta Iheslarien aldeko TOPA!
15:00 Bazkaria
18:00 Txikitoren errekonkista eta karaoke ibiltaria
**eibarko plaiara etorri bihar dan moduan**
23:00 Kontzertuak

Cold Revenge
PENADAS POR LA LEY
PURO CHILE

## 25 igandea
07:00 Makarronada
08:00 Elektrotxaranga!
09:00 Jaia gaztetxean
18:00 Bertso saioa
ZINEA "Remenber"
azken urteetako argazki, bideo emanaldia (palomitekin)
gero... karaokea!








EL TIO PALANCAS

• MAHAI GOZOAK EZKONTZETARAKO
• URTEBETETZE ETA EZKONTZETARAKO POLTSAK
• TXUTXEEKIN EGINDAKO TARTA PERTSONALIZATUAK, BROTXETAK...

Egunero zabalik
JUAN GISASOLA, 8
665 70 20 82

943 201213
602 451225
IbaiOndo inmobiliaria
Bidebarrieta 24, baxua
ZURE INMOBILIARIA
Operazioa gurekin itxi ezkero etxe eta lokalen erreformetan deskontu ikusgarriak.
INTERIORISTA: Nagore Goikoetxea
(mokka interiorismoa)
www.inmoibaiondo.com
ibaiondo@inmoibaiondo.com




IÑAKI REZOLA
HARATEGIA
San Juan zoriontsuak!
Errebal, 23 – Tel. 943 201 729

Ostegunetik larunbatera txosnagunetik irten barik jaietaz gozatzeko egitaraua prestatu du Jaixak Herrixak Herrixandako elkarteak, eta musikak, nola ez, protagonismoa izango du. 24an, adibidez, 'Puro Chile' taldeak joko du. Vulpess taldeko Mamen Rodrigok, Eskorbuto eta beste hainbat taldetan ibilitako Urko Igartiburuk, Parabellumeko Josu Korkostegik eta EH Sukarran urte askoan baxujole izan zen Cesar Tejada eibartarrak osatzen dute taldea.

# Mamen Rodrigo, Puro Chile: "Gure dibertsio balbula da musika"

- Ibilbide luzea dauka 'Puro Chilek', baina etenaldi baten ostean bueltatu zarete. Zergatik erabaki zenuten gelditzea?

Bost urte egon gara publiko aurrean jo barik, baina lokalean entsaiatzen jarraitu dugu. Hainbat egoera pertsonalen eta Pedro Fernandez bateriaren joatearen ondorioz gelditzea erabaki genuen. Nik sorbaldako lesioa izan nuen, baina Cesar sartu zen taldean eta, babajan baten ostean, Josu hasi zen bateria moduan.

- Taldearen esentzia aldatu da aldaketa hauekin?

Taldearen egitura aldatzea prozesu aberasgarria izan da. Hasieran hirukotea ginen, gero Ane Irisarri eibartarra sartu zen taldean koroak egitera, eta hirukotera bueltatu ginen ostean. Orain laukotea osatzen dugu berriz eta esentziak bera izaten jarraitzen du. Beste estilo batzuetan murgiltzea axola ez zaion rock and roll taldea gara, konplexu barik, gure mugak ezagutuz eta dena errespetuarekin eginez.

- Nola mantentzen da musikaren sugarra piztuta hainbeste urtetan?

Musika gure parte da, adierazteko dugun modua eta dibertsio balbula.



- Nola sentitzen zarete txosnetan eskainiko duzuen kontzertuaren aurrean?

Chileak ikusten jendeak ondo pasatzea da gure nahia. Rock and roll talde ona entzutera joan nahi duen jendea biltzea espero dugu eta, amaieran, euren nahiak asetzea.

Euskal FERR
KIÑU 2000
BURDINDEGIA
San Juan, 17-19 Telf. 943 200 492 - 943 700 926

ELEKTRIZITATEA
urki s.a.
INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK
Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 95 / 72
Faxa. 943 20 38 53
transfab@electricidadurki.com

CORREDURIA COSTAMAR

| | | |
|---|---|---|
| AUTOAK | ISTRIPUAK | KARNET KENTZEA |
| ETXEA | DENDA | ASISTENTZIA BIDAIAN |
| EHIZA | ENPRESA | E.P.S.V. PENTSIOAK |
| BIZITZA | AUTONOMOA | INBERTSIOAK |
| OSASUNA | AURREZPENA | BABES JURIDIKOA |
| HILETAK | ERANTZ. ZIBILA | KREDITUA ETA BERMEA |

Urkizu Pasealekua, 11 - Solairuartea - 20600 - EIBAR
Tel: 943-120437 / Faxa: 943-127180 DFGV zkia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

astixa
Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.943206231

Ekainaren 24an sartu eta berehala, San Juan Kantua abestu eta Marruko kainoiak salba egin ostean, danbor hotsek hartuko dute herria. Danborrari lehen kolpeak Untzagan eman eta gero, Eibarko kaleetan ibiliko da burrunbada. Gauerdiko eztanda, San Juan Eguna delako, eibartarrok urte osoan zehar itxarondako eguna.



# 90 urte danbor doinuen artean

90 urte beteko ditu aurten danborradak. Agiriek diotenez, Batzokiak 1927an antolatutako umeen danborrada da tradizio honi dagokion lehen erreferentzia. Hiru urte geroago, 1930ean, Kerizpek hartu zuen erreleboa eta Gerra Zibilaren ostean, 1948an, Alperrak elkartekoek berreskuratu zuten. Umeen danborradak, ostera, 20 urte gehiago itxaron behar izan zituen, Sinqui izeneko koadrilak antolatu arte. Sanandresetako hotza zela-eta Sanjuanetako berora egin zuen salto danborradak eta jaietan jendeak gehien itxaroten duen ekimenetako bat da aspaldi.

Martitzen arratsaldean antolatzaileek egindako aurkezpenean azaldu zutenez, urteroko martxan Untzagan hasiko da Danborradaren Alardea, San Juan kantuaren atzetik. Aurten ere Euskal Telebistakoak etorriko direla eta, "horren eraginez" Untzagan sei pieza joko dituzte, betiko ibilbideari ekin baino lehen eta bidean hainbat alditan geratu egingo dira: San Andres eliza parean, Urkizun, Arragueta/Ibarkurutzen, Toribio Etxebarrian eta, amaitzeko, Untzagan (harmailen aldean). Ibilbide osoan Eibarko Cielito Musika Bandakoen laguntza izango dute eta, horrez gain, megafoniarekin indartuko dute musika.

Azken urteotako bideari jarraituta, 300 bat kidek jardungo dute aurten ere, 11 konpainiatan (danborren sei konpainia eta barrilen bost) banatuta. Denera 20 pieza inguru eskainiko dituzte, ohiko errepertorioari jarraituta: 'Diana', 'Idiarena', 'Mutriku herria', 'Tatiago', 'Arragueta kalean', 'Aupa Mendaro', 'Hau dek hau', 'Eibarko martxa', 'Zezenak dira', 'Debako martxa'... Horiekin batera, *"agian pieza berriren bat" joko dutela aurreratu zuten aurkezpenean: "Seguruenik Urkizun 'Marcha de viejas' izenburukoa joko dugu, entsaiatzen gabiltza eta. Ikusiko dugu, ondo irten ezkero beharbada errepikatzera animatuko gara".*

## Danbor Nagusi berria

Helduen danborradak bestelako berritasunik izango du aurten: azken urteotan Jose Miguel Laskurain izan da Danbor Nagusia, baina iaz lagatzeko asmoa zuela aurreratu zuen eta hala izango da. Be-

GAUR
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK
ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK
Zuloagatarren 9, behea
carmen@egaur.com
Telefonoa 943 20 62 40
Faxa 943 05 69 23

Catalana Occidente Seguros
ERANTZUKIZUN ZIBILA / AUTOAK
BIZITZA ETA JUBILAZIOA / OSASUN ASEGURUA / ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK / ARRISKU ANITZAK


EMILIO DE LOS TOYOS
Erreg. zkia. C046815351532K
Eibarko Txikito, 8
943 200 908 / 610 422 179
emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

Oinetakoak
Tribeka
Zuloagatarren, 7
Tfnoa. 943 20 62 24

josi ta josi
konponketak eta jostun lanak

Zezenbide, 2
Telf. 943 254 640


*Herenegun egin zuten aurtengo Danborradaren aurkezpen ekitaldia.*

re ordez Juan Luis Baglietto "Manli" izango da danborradaren gidari berria. Eta, horrekin batera, oraingoan figura berri bi gehituko zaizkio danborradari: Danborren kaboa (Juan Mari Lejardi "Pastor") eta Barrilen kaboa (Jesus Mª Olmedo "Kata"). Leire Kareaga *"oso modu ederrean"* apaindutako karrozan, bestalde, iaz 75 urte bete zituen Eibarko Txirrindularien Elkarteko ordezkariak joango dira.

**Umeen Danborrada, aurten talde bakarrean**

San Juan bezperako jai giroari erreleboa hartuz, herriko gazteenen txanda iritsiko da San Juan egunean. 19:00etan hasiko da Umeen Danborrada Urkizun eta Untzagaraino egingo dute kalejira. Herriko ikastetxeetako haurrek hartuko dute parte aurten ere, eta azken asteotan burubelarri entseiatzen aritu dira danborra jotzen ibiliko diren 300 bat umeak. Kalejira amaitu eta jarraian, 20:30ak aldera Untzagan sartuko da danborrada eta, Danbor Nagusiak pregoia irakurriko eta jarraian, alardea eskainiko diote harmailetan zain izango duten publikoari.

Aurtengo berritasun nagusia talde bitan banatuta joan barik, aurten denak elkarrekin, talde bakarrean joango direla izango da. Horrekin batera, Urkizutik abiatuko den kalejiran aurten txaranga bakarrak, Ustekabek lagunduko die, baina musika ondo entzun dadin megafonia erabiliko dute. Ikastolako Danbor Nagusia Naira Mc Elroy izango da, banderadunak Irati Telleria eta Miren Ortuzar eta Napoleon, berriz, Luken Telleria. Horiekin batera, beste Danbor Nagusiak hauek izango dira: Enara Gordillo (La Salle), Lorea Perez (Aldatze), Ariane Cabero (Urkizu) eta Silvia Ortiz de Lazkano (San Andres). Eta karrozan joango diren umeak, berriz, hauek dira: Alejandra Diaz, Paula Gonzalez, Yulene Gil, Danel Rodriguez, Karen Mc Elroy, Izaro Rial, Eider Moreno, Ainhize Egurrola, June Simal, Izaro Egiguren, Maialen Agirregomezkorta, Naia Montaño, Nagore Telleria, Maialen Salaberria eta Naroa Errasti.

EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta 20
Tlfno: 943 20 16 69
oberenaharategia
OBERENA HARATEGIA

Larragest
API 353 zbk.
INMOBILIARIA / ASEGURUAK
F. Calbetón, 22-24
943 200 012
690 610 715

## TOKYO BRASS STYLE



Haizetara jaialdiko XII. edizioa dela eta, Japoniatik datorren neska banda bat izango dugu gure  artean.

**Ekainak 23, barixakua**
**19:00, Untzagan**

## TOMB CREATIUS
### "El Viaje"

**Ekainak 24, zapatua**
**11:00-14:00,**
**18:00-21:00, Untzagan**

Feria bateko txosnak "bidai siderala" egitera gonbidatuko gaitu.
Bidaia ona izan!



## TRAPU ZAHARRA
### "SEFINÍ !!"



Euren kontratuen prekarietatea dela eta, antzerki talde zahar bateko bi antzezlek ateak itxi behar dituzte.  Material guztia saldu behar dute, eta, melankoliaz eta amorruz, euren ibilbide artistikoa errepasatuko dute.

**Ekainak 23, barixakua**
**19:00, Ego-gain kalean**

## GANSO TALDEA
### "Walkman"

**Ekainak 24, zapatua**
**18:30, Untzagan**

GIzona, showmana, seduktorea, tipo baikorra. Egiten duen guztiak merezi duela sinestarazteko prest dagoen tontolapikoa.




## TOMB CREATIUS
### "Xic del Xurrac" jolas parkea



"Xic del Xurrac" egurrezko lehendabiziko *colla castellers*a da. Untzagan publikoaren parte hartzea beharrezkoa izango da, oreka, indarra, kemena eta "castellers"en balioak konpartitzeko.

**Ekainak 24, zapatua**
**11:00-14:00,**
**18:00-21:00, Untzagan**

## El Negro y el Flaco
### Circomatik jolas parkea



Zirkoko elementuetan oinarritutako jolas parkea da, eta psikomotrizitatea eta oreka konbinatzen ditu.

**Ekainak 25, domeka**
**11:00-14:00,**
**18:00-20:00, Untzagan**

---

PODOLOGOA
Maider Lopez Etxeberria
65 Kolegiatu zbkia.
Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea
San Juan zoriontsuak
Giokela
Carniceria Autorizada
Urkizu, 18 —— 943 120194
MUGIKA

San Andres Gozotegia
tartak
enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

Juan Gisasola, 14
Tfnoa. 943 20 39 02 benicobacenor@gmail.com
BENICOBA
Etxeko tresnak
cenor
Sukaldeko altzariak
BEHAR DUZUNA LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU
Zorionak!

**Kultu:**

Zuloagatarren, 3
Tel. 943 20 84 39









RPS 233/13

**aldaz**
Clínicas dentales - Hortz klinikak

# INPLANTE PROMOZIO BERRIA!



**Ekainaren 15-etik**
**Irailaren 15-era arte!**

**Informa zaitez!**

**943 36 63 77**
www.dentalaldaz.com

You Tube

Lasarte - Oria
Ola kalea, 10

Elgoibar
San Bartolomé, 22

Tolosa
San Frantzisko, 39

# Suaren garra dantzarekin bizituz





Baserri eta landa guneetako ohiturak hirira ekartzeko asmoz antolatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak San Juan sua 1993. urtean. Azterketak, paperak, izpiritu txarrak edo norberak nahi duena erretzeko balio duen errituala ekainaren 23an egingo da, urtero moduan, 23:00etan Untzagan.

Noricak (bere mendeurrenean), Ballet Eibarresek (Juanita Unzuetaren omenez), Gimnasia Erritmikoa Taldeak (aurten lortutako garaipenengatik), Asociacion Armerak (bere 50. urteurrenean), Goruntz Abesbatzak (bere 25. urteurrenean) eta udal ordezkariek piztuko dute Sanjuanetako sua. Eurekin batera, eta antolatzaile moduan, aurten 25 urte bete dituen ...eta kitto! Euskara Elkartea egongo da. Apirilean bete zuen mende laurdena elkarteak eta sua piztuko du omenaldi moduan.

Sua piztearen errituralaren aurretik, ohitura denez, Ipuruako Dantza Taldeak dantza-ikuskizuna eskainiko du. Nerea Lodosak zuzentzen duen taldeak XX. mende hasierara egingo du jauzi eta raketistak omenduko ditu. "*Asko txunditu nau euren historiak*", azaldu digu Nerea Lodosak.

Raketisten inguruan asko irakurri eta ikasi du Lodosak San Juan Suaren aurreko dantzak prestatzeko. "*Gaur egun errekonozimendu gutxi daukate, baina sasoi hartan Eibar foballeko Lehen Mailara igotzea baino arrakastatsuagoa izan zen euren jarduna*".

Denetariko doinuak eta hainbat estilo dantzatuko dituzte Untzagan. "*Motel hasiko gara eta tela txuriekin raketen mugimenduak egingo ditugu. Gero, erritmoa bizitu eta Xabi Solanoren 'Erre zenituzten sorgiñen' abestiarekin amaituko dugu*". Erratzak beharrean, baina, raketak erabiliko dituzte dantzariek. Zuriz jantzita joango dira Untzagan arituko diren 100 dantzariak, "*gerriko gorri edo urdinarekin, eta sasoi hartako raketak errespetatuz*".

Dantza amaitzerakoan, San Juan sua piztuko dute aurtengo omenduek.

ISASI OKINDEGIA
LANTEGIA
- Elgetako bidea 9
943 70 07 77
DENDAK
- Ego-Gain, 2
943 20 23 40
- Zabaleta (Bidebarrieta, 10)
943 20 02 25
- Tiburtzio Anitua, 25
- Urki, 15

PUBLI RESA
objeto publicitario
Armagin, 3-5 beheak
merchandising
serigrafia
lanerako erropa
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419

LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA
Gaurve
Tfnoa. 943 202 461
Fermin Calbeton, 13-15
Faxa. 943 201 125
www.gaurve.es

C&J CERRAJEROS
LOCKSMITH CERRAJERO DE SEGURIDAD UCES
Homologatutako enpresa 1502 zkia.
G
www.CerrajeroGipuzkoa.com
cjcerrajeros@gmail.com
Tel. 943 107 770
Juan Gisasola, 4
EIBAR
Tel. 943 132 314
Araba, 27
ZARAUTZ

# Ondo pasa Sanjuanetan!!


GURE LEKU
Isasi, 3
20600 EIBAR
☎ 943 20 71 89

MARTXA eta juerga giro onean
645 65 13 09
bar aldatz
ONDO PASAU Sanjuanak
San Juan, 3






SLOW
Ego Gain, 10 943 25 41 33

Goizeko 07.30etatik zabalik
ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!!
bar manuel
(JUANITO)
Urkizu, 5 943 12 16 57

CHC

hirurok
TABERNA
Errekatxu, 1
Tel. 943 56 72 06

XOK
Ondo pasau!

telepizza.es
Oinarrizkoa masa da
San Juan, 15 943208989

Sanjuanetako musikari hasiera eman zion Gatibuk joan den asteburuan, baina dantza eta gozamenerako doinuek jarraipena izango dute datozen egunotan. Japonia, Mexiko eta Senegaletik doinu berriak etorriko zaizkigu herriko musikari maiteenekin batera Sanjuanak girotzeko.

# Munduko doinuak herriko jaiak alaitzeko

Barixakutik domekara, hilaren 23tik 25era, bete-beteta dator Sanjuanetako kontzertuen egitaraua. Lehen doinuak Japoniako hiriburutik etorriko zaizkigu **Tokyo Brass Style** taldearen eskutik. Emakume talde hau 2014an ere gurean egon zen, eta euren musikaren alaitasun eta bizitasunak harrituta utzi zituen emanaldia ikustera joan zirenak. Japoniarrak ekainaren 23an Untzagan arituko dira 19:00etan.

Tokyo Brass Stylek emanaldia hasten duen une berean, **Irulitxa fanfarreak** ere kalejira hasiko du Untzagatik. Ermuarrak urtero aritzen dira Sanjuanetan eta aurten ere ez dute hutsik egingo.

San Juan bezperari agur esateko, beste talde mitiko bat: **Lisker**. Talde eibartarrak 23:00etan hasiko du emanaldia eta goizeko 04:00ak arte dantzan jarriko du Untzaga.



Africa Baj Yay



Jamaica Show orkestra

PINTURAS ARRATE, S.L.
• Nexa Autocolor
• Pintura industriala
• 3M produktuen banatzailea
MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

ALTZARIAK • OBJEKTUAK • OSAGARRIAK • MENAJEA
OIHALAK • ARGIZTAPENA • PAPERTEGIA
DIVINA VALENTINA
CHIC & DECO
CONCEPTSTORE
Bidebarrieta, 18 943 05 46 37

ROTULOS JBA
943 20 88 69
Sostoa,3 EIBAR www.rotulosjba.com

Twins
Eibar
bidebarrieta, 8 • tel. 943 05 60 82


Lisker


Irulitxa

**Ertzantzako Musika Banda**rekin hasiko da San Juan eguneko musika egitaraua 24an, 12:45ean, Untzagan. Gero, gaueko 22:00ak arte itxaron behar izango da musikaz gozatzeko, **Jainaga eta Narbaizak** Untzagan erromeria eskaini arte. Euren ostean, 00:15ean, **Jamaica Show orkestra**ren eskutik berbena egongo da. Nafarrek denetariko musika, dantza eta ikuskizuna ekarriko dute herrira.

Domeka, ekainaren 25a, musikaz beteta datorkigu. Bederatzi urteren ostean **Txistularien Alardea eskainiko du Usartza Txistulari Taldea**k Untzagan 13:00etan. Senegaletik etorriko dira hurrengo protagonistak, izan ere, **Africa Baj Yay** taldeak kalejira egingo du 18:00etan Untzagatik hasita. Senegaletik Mexikora jauzi eginda, **Imperial Elegancia Mexicana**k 'callejonada' egingo du 19:00etan, eta emanaldia eskainiko du 22:00etan. Tarteak, **Aiko Taldeak**, Eibarko Musika Bandak eta Kezka Dantza Taldeak BANDtzaldia erromeria ekarriko dute Untzagara 19:00etan.


Imperial Elegancia Mexicana


Tokyo Brass Style

25 urte eibartarron zerbitzura
AHOLKULARITZA eta GESTIOA
EGOLAN
Julian Etxeberria 7, 7.-C
Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com
Eskerrik asko eta ondo pasa Sanjuanak

SAN AGUSTIN, 2-4
943.821.850
premierclass
viajesbidaiak
ZUEN BIDAIETAN primeran!!! ETA SANJUANETAN
EIBAR FOOTBALL TALDEAREN BIDAIA AGENTZIA OFIZIALA

# Jaiei primerako hasiera emateko ardura

Sanjuanetako armonia ona aprobetxatuz, herriko hainbat pertsona, talde edo elkarte omentzeko momentu aproposa izaten da, herrikideen esker hona jaso eta urteetan egindako lana goraipatzeko. Hitz polit eta loreak jasotzeaz gain, hala ere, ardura handia izaten dute, euren esku geratzen delako pregoia eman eta txupinazoa botatzea.


*Ipurua Gimnasia Erritmika taldea*

Aurtengo Sanjuanetan omenduak izango direnak honakoak dira: **'Norica'** karabinen enpresa, **'Asociacion Armera'**, **Ipurua Gimnasia Erritimika** taldea eta **Juanita Unzueta** 'Errusiarra', Ballet Eibarres sortu eta herrian balletari bultzada eman zion emakumea.


*Juanita Unzueta, Ballet Eibarrés-eko sortzailea, apirilean zendu zen.*

1917an 'Sociedad Industrial Norberto Arizmendi & Cia' sortu zuen Norberto Arizmendik Armeria Eskolan ikasi ostean. Kalitate oneko eskopeta, rifle eta pistolak egiteko helburuarekin zabaldu zuen fabrika Isasi kalean. Handik Otaolara pasa zen eta hainbat izen aldaketa izan zituen: 'Farmi SAL' eta 'Montajes Usartza SAL'. Gaur egun Elgetan dago finkatuta 'Norica', baina Eibarren izena mundu osora zabaltzen jarraitzen du.

Eibarko armagileek indarrak batu zituzten orain dela 50 urte 'Asociacion Armera' sortuz. Sasoian sasoikora egokituz, erronka berriei egiten die etengabe elkarteak, XXI. mendeko armagintza modernora eta eszenatoki aldakorrera moldatuz.

Ipurua Gimnasia Erritmikako taldeak urte borobila izan du aurten. Infantilak Espainiako txapeldun bilakatu ziren eta emaitza handiak lortu dituzte denboraldian zehar.

Apirilaren 6an utzi gintuen Juanita Unzueta 'Ballet Eibarresen' sortzaileak. 12 urterekin Errusiara bidali zuten Gerra Zibiletik ihesi eta 1956ra arte egon zen han. Bertan balleta ikasi zuen Vladimir Biely irakaslearekin eta, itzuleran, balleta Eibarrera ekarri zuen berarekin.


FISIOTERAPIA
MUGI
EIDER MUGICA ARISTONDO
Tel. 669 735 925
Egigurentarren, 18

TXUTXUFLETAS
PRENTSA
ALDIZKARIAK
GOZOKIAK
FRUITU LEHORRAK
• OGI BEROA
T. Etxebarria, 24
TEL. 943 20 60 10

Rivero
Isasi, 18 - behea
696 564 813
943 033 649
Oinetakoen konponketa

EGUREN & ASOCIADOS
ABOGADOS
JOSE VICENTE PEROSANZ
Mª LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA
TEL. 943 204 194
FAXA. 943 820 006
Urtzaile, 1
egurenyasociados@gmail.com

**Belaustegi BASERRIA JATETXEA**

www.belaustegi.com
San Miguel gaina
Tel. 943 74 31 02

*Ondo pasa Sanjuanetan!*




El Mundo del Pintor

Irekiera eskaintza

zure pintura erosketetan
%20ko
DESKONTUA




ibersa
PINTURAS

**Kalitatezko Pintura Prezio Onenean**

Urkizu Pasealekua Ibilbidea, 19
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 229 855

ZURE PINTURA FABRIKATZAILEA ESPAINIA GUZTIAN 100 DENDA BAINO GEHIAGOREKIN

Ekainaren 30era arteko eskaintza

# Marruko
## Jo ta fuego berriz

Bolbora usaina izango du danborradaren salbak aurten. 2006ko Sanjuanetan bota zuen azken salba Marruko kanoiak eta ordutik bahituta izan du Goardia Zibilak. "*Auzitan egon da bere jabetza eta horregatik ezin izan da orain arte erabili*", Marina Barrena Armagintzaren Museoaren teknikariaren berbetan. 2014ko urrian epaileak Udalari eman zion kanoiaren jabetza eta Gobernu Azpiordezkaritzari baimena eskatu zioten. "*Kanoia frogatu eta ondo zebilela ikusita, Goardia Zibilak erabiltzeko baimena eman zigun*".

Inoiz salba entzun duenak ondo jakingo du Marrukoren eztanda zein zaratatsua den. Juan Mari Lejardi 'Pastorrek' elkarrizketa batean kontatu zuen moduan, "*kanoia Bizkaiko bi tokitara eraman genuen eta Mungian eta Ispasterreko Batzokian kristalak apurtu ziren burrunbadarekin*". Eibarko leihoak salbu egongo dira aurten, izan ere, "*karga murriztu diogu, baina bere misioa betetzen du*", adierazten du Patxi Lejardi Euskara eta Kultura zinegotziak. "*Segurtasun eta sonoritate arau guztiak betetzen ditu*".

Jose Miguel Calle Udaltzainen burua zenak ekarri zuen Eibarrera Marruko eta Armagintza Museoan dago ikusgai orain. Arabako Arkabuzari Elkartea osatuko zuten bi kidek



sortu zuten kanoia 1989an eta 'General Alava' izena jarri zioten, Independentzia Gerran Gasteizeko heroia izan zenaren omenez.

Eibarren Marruko izena jartzeko ildo beretik jo zuten jabeek. Frantziarren inbasioan Eibarren defentsako heroia izan zen Marruko eta bere omenez jarri zitzaion izena kanoiari. Frantziarrei egindako hainbat amarruen protagonista izan zen eta modu tragikoan erail zuten ondoren.

Laukolan
SOLUCIONES INFORMATICAS
Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087
Urkizu Pasealekua, 10 (20600 EIBAR)




Zabala Comercial
OSTALARITZA ARTIKULUEN SALMENTA ETA MUNTAIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA KONPONKETA
Jose Antonio Gisasola, 6 - ac
Tel/Fax. 943 20 88 57
comercialzabala@outlook.com

San Juan jai zoriontsuak!
CBL
Cristina Baz Larrañaga
ABOKATUA ETA AHOLKULARITZA
Errebal 9, 1 D
www.cristinabaz.com
943 12 80 55 - 630 64 21 75
cristinabaz@icagi.net

# *AUTOEN* gehigarria



38.
zkia.

# GIDATZEKO JARRERA EGOKIA

## KONTUAN HARTU BEHARREKOA...



Gidatzerakoan jarrera txarra izanez gero, muskuluak zurrundu egiten dira eta bizkarreko mina sortzen da. Horregatik, oso garrantzitsua da eserlekuen posizioa graduatzea, bai eserlekua bera bai eserleku-bizkarrarena, besoek eta hankek eroso jardun dezaten; gustura gidatzeko, bolantearen altuera moldaerraza izatea ere komeni da.

## AHOLKUAK

Oro har, esperientziarik gabeko gidariek jarrera desegokia hartzen dute gidatzerakoan: eserlekua oso aurrean jartzen dute eta eserleku-bizkarra ia-ia bertikalean. Modu horretan gidatzea ez da jarrera egokia.

Eserleku-bizkarra atzerantz okertu behar da apur bat, bihurguneetan eutsi gaitzan. Besoak angeluan jarri behar dira, bolantea hobeto maneiatu ahal izateko.

Autoa erosterakoan, komeni da zenbait abantaila ba ote dituen egiaztatzea, besteak beste, eserleku doigarriak, altueran erregulatzen diren bolantea eta segurtasun-uhalak, e.a. Azken finean, lasaiago eta, beraz, seguruago bidaiatzen laguntzen duten elementuak dira.



Ezinbestekoa da hanken jarrera edo posizioa: eserlekua graduatzerako orduan, kontuan hartu behar dugu enbragea zapaltzerakoan hanka flexionatuta gelditu behar dela.

Eserleku-bizkarra erregulatzerakoan ondorengo aholkua ematen dute adituek: bizkarra guztiz ezartzerakoan, eskumuturrarekin bolantearen alderik altuena ikutu behar dugula.

Gure eskerlekuaren altura erregulatzeko aukera baldin badaukagu, ahalik eta bisibilitate handiena izan arte igoko dugu, beti ere lau edo bost atzamarretako distantzia utzita gure burua eta autoaren sabaiaren artean.

Buru-euskarriaren posizioa buruaren erdialdea ezarriz erregulatzea komeni da, juxtu garondoaren gainean.

Bolanteak erregulazioa baldin badu, eserlekuaren erregulazioarekin konbinatuko dugu, postura ona lortu ahal izateko.

AUTO - RECAMBIOS Umbe
Barrena, 11 *umbe.holyauto@hotmail.com*
Tel. 943 12 04 00 Fax. 943 70 20 65
Autoarendako hornidurak eta ordezko piezak
HolyAuto GROUP

garajesGarcía.com
Auto berrien, erabilitakoen eta KM0-koen SALMENTA
Begiratu gure finantziazioak autoa erosterakoan
BOSCH Service Car Service
ENGANCHES ARAGON
BANATZAILE OFIZIALA: Enganches ARAGON
943 202 214 / 943 127 271

CITROËN
Autos Amedi
SALMENTA eta KONPONKETA
autosamedi@telefonica.net
717 067 879
943 170 414
Zearreko buelta, 3 zkia. - ERMUA




Autoen mantenimendu integrala
Talleres Caño
Oscar Caño Rubio
Armagin, 8 Ac
943 53 08 70 / 639 51 70 44 oscarc.rubio@gmail.com

GASOLEOEN BANAKETA

ZERBITZU ONENAREN SARIA

estación de servicio kantoi eibar

20.000 L.

2.000 L.

24 ordu

**Otaola etorbidea, 13 -Bis**

Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA



AUTO KONPONKETAK

**AURRERA**

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65
20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

**LASKURAIN ASEGURUAK**

RAC VASCO NAVARRO

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza

J. Etxeberria, 7 (Aldapatxo)
Telf. 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87

rac@jalaskurain.euskalnet.net

www.AUTOBOX.BIZ
ALQUILER DE BOXES

MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
ERREMINTAK ETA AHOLKULARITZA DOAN
OSAGAI, ORDEZKO ETA NEUMATIKOEN SALMENTA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA 09.30-13:00 / 15:00-20:00 LARUNBATETAN 09.30-13.30

Ibur Erreka, 38 - Olarreaga Auzoa, 38
*(Eibar eta Ermuaren arteko probintzia mugan)*
Tfnoa. 943 20 72 44 Mobila: 651 85 50 60
www.autobox.biz
autobox@autobox.biz

MAPFRE ASEGURUAK

LOURDES URZURIAGA
*987 ZENBAKIDUN DELEGATUA*

AUTO ETA ETXEBIZITZA ASEGURUAK
JUBILAZIO PLANAK
INBERTSIO FONDOAK
OSASUN ASEGURUAK
ENPRESA ASEGURUAK

Sostoa, 1 - behea (EIBAR) lurzuri@mapfre.com
☎ 943 820 449 Faxa: 943 820 609 Mobila: 607 401 929

**Torrekua, 2**
20600 EIBAR

Tel. eta Faxa
943 20 62 48
Tel. 943 20 70 31
eseibar@facilnet.es

ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A.

AVIA

FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA
AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA

**24 ordutan zabalik**

**www.estaciondeservicioeibar.com**




**GAURSA**

**Otaola, 22 - 20600 - Eibar - Gipuzkoa - Tel. 943 820 974**

Kontsumo mistoa: 4,4 l/100 km. $CO_2$ isurpenak: 99 g/km.

*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan 14.250,00€ Nissan Micra IG-T 0.9 N-CONNECTA S&S 90CV (66 kW) berriarentzat, Merkaturatze-pack honekin (BOSE®PERSONAL® audio-sistema, Atzeko Kamera eta NissanConnect). Barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua eta BEZ. Aplikatutako zergek erosketako unera arte aldaketak izango balituzte, prezioa indarrean dauden zerga-tasa berrien aplikazioaren arabera moldatuko da. Finantzatzeko zenbatekoa 11.333,09 € 49 hilabetetan (sustapen-laguntza barne). Irekitze-komisioa 0,0€. ITN %6,00. UTB %6,17. Sarrera: 2.916,91 €. 140,00€ko 48 kuota eta azken kuota 6.859,00 €. Epekako prezioa, guztira: 16.495,91 €. Zordundutako zenbatekoa, guztira: 13.579,00 €. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 6.000 €. 24 hilabeteko gutxieneko iraupena. Eskaintzak Auto Pack-a dauka barne (Auto Asegurua 600€ko frankiziarekin + Securplus + Pneumatiko Asegurua) RCIren bidez. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 17/07/31 arte da balioduna, baldin eta eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen bada eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan de RCI Banque SAren bidez finantzatzen bada. 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro mugarekin). Sartutako berrikusketak Bermeen Liburuaren eta Mantentze Ziurtagiriaren araberako estandarrak dira. Informazio gehiagorako, joan gertuen duzun Nissan kontzesionariora. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskainitako ibilgailuarekin.

# AUTOAN TXIKITXOEKIN

Oso estresantea da gidatzerakoan umeak negarrez edo eztabaidan hastea, eta egoera estresagarriek sarritan arriskua ekartzen dute. Haurrak, normalean, ordubete baino luzeagoko bidaietan aspertu egiten dira eta hortik etortzen dira eurekin bidaiatzerakoan arazorik handienak. Seguruago eta erosoago bidaiatzeko irakurri gure aholkuok:



1) Bidaia aurretiaz planteatu, ahalik eta ondoen. Bide aukera bat baino gehiago pentsatuta eduki, batek kale eginez gero aukerak eskura izateko. Bidaia aurretiaz pentsatzen baduzu, gainera, bidaia “abentura“ baten moduan ezagutzera eman dezakezu, ipuin baten moduan. Pasatzen zareten tokien inguruko istorioak kontatuz, kotxean ibiltzea gustuko izatea lortuko duzu.
2) Eraman kotxea garbi, usain gozoarekin, tenperatura egokian. Jarri iezaiezu gustatzen zaien musika, al baduzu eraman ipuin-libururen bat, koloreetako arkatzak, jolasak...
3) Entretenitzeko estrategiak: milaka dituzu, gidoi bat prestatu dezakezu bidaia bakoitzean era ezberdinean egiteko, “ikusi makusi” klasikotik hasi eta errepidea irakurtzera bultzatzen duten ekimenetara, eskatu umeei gidatzen lagundu diezazuten errepidea irakurriaz: errepidean txarto jarrita dauden ikurrak deskubritu, zubi bat pasatzerakoan makurtzea eskatu, edo prestatu eurek parte hartu eta osatu ahalko duten istorioren bat. Joku sinbolikoa erabili dezakezu: suhiltzaileak zaretela imaginatu, edo mezu garrantzitsu bat entregatu behar duzuela amestu.
4) Atsedenaldiak sakratuak dira. Bidaiak iraungo duen tartea aurretiaz asimilatzen baduzue, inor ere ez da agobiatuko zenbat denbora iraungo duen galdezka, eta gidariak ez du korrika ibiltzeko tentaziorik izango.
5) Eraman bidaiarako egokiak diren jakiak eta edariak.


ACITAIN, S. A.
ZERBITZUGUNEA
www.acitain.com
AVIA
● 24 ORDUKO ZERBITZUA
● Gasoleoen zuzeneko banaketa
● Garbiketa automatikoa eta presioarekin
Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 acitain@gmail.com

VALDI
TAILER MEKANIKOAK
Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Aire egokitua.
Injekzio elektronikoa gasoila.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak…
Barakaldo 19, behea
Telf. 943 12 73 98
Mob. 639 004 603
tmvaldi@hotmail.com
Talleres VALDI

ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

MAK CARROCERIAS
Matsaria, 2
3 Pabilioia
-Eibar-
Pintura (labean lehortua) Txapa
Neumatikoak Mekanika
943 208 502 carrocerias_mak@hotmail.com 699 203 791

Carrocerías ARANE
GURE TAILERRETAN
◆ KARROZERIAK OROKORREAN ◆ TAPIZERIA GARBIKETA
◆ BANKADA UNIBERTSALA ◆ MEKANIKA
◆ PINTATZE LABEA ◆ NEUMATIKOAK
Arane, 6 - 3. arane.carrocerias@hotmail.com
Tel. 943 70 26 20 / Fax. 943 12 19 54

# SEGURTASUNA eta ERRESPETUA ERREPIDEETAN

Segurtasuna baldintza askoren menpe egoten da. Bakarka edo binaka baino gehiago, tropelean joanda lortzen dute txirrindulariek seguruago joatea, besteak beste. Hala, atzean dituzten autoek aurreratzeko joera txikiagoa izaten dute. Gainera, taldean joateak «indarra eta segurtasuna» ematen ditu. Bakarrik joaterakoan, auto-gidariek uste dute leku gehiago dutela, baina oso gertutik pasatzen dira asko, metro eta erdiko distantzia minimoa errespetatu gabe. Taldean joatean, txirrindulariak errazago ikusteak haiek seguruago sentitzea eragiten du. Txirrindulariak ez ikusteagatik gertatzen dira istripu gehienak.



Tropelean joateagatik edo ezkerretik joateagatik eta halako jokabideengatik ernegatzen dira gehien auto gidariak. Arrazoia izan ala ez, asko kexatzen dira, sarritan jakin ere egin gabe errepidearen erabiltzaile bakoitzak zein eskubide dituen. Marra jarraituko errepideetan, esaterako, aurreratu daiteke, segurtasun neurri batzuk hartuz gero, eta jende askok ez du ezagutzen lege hori. Horren berri ez dutenak gidarien erdiak-edo dira. Maniobra horrek txirrindulariei eta zirkulazioari arriskurik ekar ez diezaiekeen kasuetan soilik egin daiteke, Hego Euskal Herriko txirrindulariei eragiten dien Zirkulazio Araudi Orokorrean jasota dagoenez. Txirrindulariak elkarren paraleloan joateari buruz, berriz, araudiak dio horretarako bezala, taldean joateko eskubidea ere badutela, eta ikusgaitasun gutxiko kasuetan edo trafiko pilaketa handiak eragiten dituztenean bakarrik joan beharko dutela ilaran. Ipar Euskal Herriari eragiten dion legedian ez da desberdintasun handirik. Binaka ala ilaran joan behar dute txirrindulariek, baina gauez edo aurreratzea zailtzen den kasuetan, automatikoki ilaran jarri behar dute, atzetik datorren ibilgailuari bidea ez oztopatzeko.

Bidegurutzeetan batzuek eta besteek duten lehentasunaren inguruan ere uste oker asko dago. Araudiak ez du, hala ere, zalantzarako aukera handirik uzten. Bidegurutzeetan debekatuta dago txirrindulariei bidea moztea, beste ibilgailuei bezalaxe. Gainera, txirrindulari talde bateko lehen txirrindulariak bidegurutze batean lehentasuna duenean, haren atzetik doazenek ere hala izango dute, ibilgailu bakar bat balitz bezala hartzen baita, kasu horretan, tropel osoa.



# Txistu doinuak baino askoz gehiago




"Freskoa eta modernoa". Horrelakoa izango da **XXII. Txistularien Alardea** Enrique Montero Usartza Txistulari Taldeko kidearen berbetan. Bederatzi urte pasa dira azken alardetik, eta inoiz baino gogo eta maitasun gehiagorekin prestatu dute ekainaren 25ean 13:00etan Untzagan eskainiko duten emanaldia.

Alardea berreskuratzeko saiakera honetan, errepertorio gaurkotu eta herrikoia prestatu du Usartzak. Ordubeteko iraupena izango du ikuskizunak eta hamasei abesti eskainiko dituzte publikoa erakarri eta ondo pasarazteko asmoz. Besteak beste, Jose Ignazio Ansorenaren 'Antzinako dantzak', Kepa Junkeraren 'Muskerraren baltsa', Niko Etxarten 'Eperra', Xabier Leteren 'Xalbadorren heriotza', Oskorriren popurria, Pablo Sorozabalen 'Gernika' eta Gorka Sarriegiren 'Arratsalde honetan' lanak ekarriko dituzte Untzagara. Gainera, modernitateari keinu eginez, Madonna abeslari estatubatuarrarekin elkarlanean aritu den Kalakan taldearen 'Sagarra jo' joko dute.



Deba, Ondarru, Elgoibar, Ermua eta Zornotzako txistulari taldeak egongo dira Untzagan txistuaren festa handian Usartzarekin batera. Ikuskizuna borobiltzeko, gainera, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako txistu ikasleek, Molto Vivace boskoteak, Sostoa abesbatzak eta Lizarrako Dultzaineroek hartuko dute parte; eta gitarra espainola, soinua, eta perkusioa eta txalapartaren doinuek txistuari lagunduko diote baita ere. Kezka Dantza Taldea ere bertan izango da.

Koktel guzti honi zapore gozoa emateko asmoz buru-belarri entseiatzen ibili dira azken asteotan alardean parte hartuko dutenak. Indarrarekin eta bizi-bizi itzuliko da alardea gure herrira.

Siglo XXI
ILEAPAINDEGIA
lamour art
ONDO PASA
San Juan jaietan!
Julian Etxeberria, 20
943 257438
Estilistak unisex
Noelia Portero Tejada

georazpiri1965@gmail.com Errebal, 19 943-200765

Betiko tokian zure zain aurpegi berriekin!
CHIQUITIN

Ketesa 2010
bulego eta kolektibitaterako instalazio osoak eta materiala
altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...
bulego materiala enpresetan banatzen dugu
www.ke2010.com
info@ke2010.com

SOUL
estilistak
San Agustin, 3
943 567 232
www.peluqueriasoul.com

*"Gu hemen bagaude, dantza eta erromeriei esker da neurri handi batean".* Sabin Bikandi musikari, musikagile eta dantza maisuak erromeriak aldarrikatzen ditu eta, horretarako, BANDtzaldia ikuskizuna antolatu du berak sortutako AIKO taldeak.

# Erromeriei emandakoa itzultzeko BANDtzaldia

Euskal Herriko banda onenekin herriz herri dabilen erromeria ibiltaria da BANDtzaldia eta ekainaren 25ean, 19:30ean, Untzagan izango dugu **Eibarko Musika Banda** eta **Kezka Dantza Taldea**rekin. Ikus-entzuleen gozamena eta musikak antzina zuen funtsa eta esanahia erreibindikatzen ditu kontzertu-erromeria honek, "*XXI. mendean erromerien ohitura berreskuratuz*".

2015ean musika konposizio onenaren Max Saria jaso zuen Bikandik esan digunez, "*azken hamarkadetan dantzaren patrimonioa dantza taldeen eskuetan utzi dugu eta sarritan dantzaren berezko funtzioa ahaztu dugu*". Euskal Herrian dantza bikote-dantza zela dio, lagunekin erromerian aritzea. "*Dantzaren funtzio nagusia kortejoa izan da*".

Herrietako musika bandek zuten garrantzia azpimarratzen du Bikandik. "*Orain dela ehun urte jendeak ez zeukan irratirik ez ezer, eta banda bat entzutea izugarria zen, esperientzia itzela, oilo ipurdia jartzekoa*". Erromeria sozializaziorako espazio garrantzitsuena zen bere ustetan, eta hori da proiektu horren abiapuntua.

Jotak, mazurkak, pasodobleak, habanerak eta boleroak izango dira entzungai, besteak beste. Banda izango da protagonista eta "*gure musika entzungo da, bandak jotakoa eta gaurgaurkoa*". Dantzei dagokienez, *"aspaldi egiten ziren dantzak eta gaur egiten ditugunak aurkeztuko ditugu"*. Izan ere, Bikandik azpimarratzen duen moduan, *"gauza batzuk, zaharrak izanik, berriak dira gaur egun*".



Herritar guztiei zabaldu die Bikandik BANDtzaldia ikustera joan eta dantza egiteko gonbidapena. "*Printzipioz, edozeinek egin dezake dantza. Musikak gorputzaren erritmoa markatzea, lagunekin dantzatzea eta ondo pasatzea da garrantzitsuena*".







# Karmen kalera Sanpedroak ospatzera





Urtero moduan Eibarko behekaldea ekitaldiz beteko da ekainaren 27tik 29ra bitartean, Beheko Tokiak antolatutako egitarauari esker. Martitzen arratsaldean umeendako **txokolate-jana** eta **jokuen** ondoren, **Gorriti eta bere abereen** ikuskizuna izango da Karmen kaleko parkean. Hurrengo egunean, ekainaren 28an (eguaztena), eguerdian **toka eta igela txapelketa** izango dira, eta 18:00etatik aurrera Mexikoko doinuak izango ditugu **Mariachi Dominguez taldea**rekin. Ondoren, Dario Fo-ren **"Pareja abierta" antzezlana** eskainiko dute Ernesto Barrutia eta Isabel Gonzalezek. Musikaren jarraituz, **Kaleetan Kantuz** taldearen emanaldia izango da iluntzean eta, piskolabisaren ostean, 21:30etik aurrera, dantzaldia **Tukan** taldearekin.
Ekainaren 29an (eguena), 12:00etan, Karmen Parrokian **meza** izango da **Gospel Bilbao** ahots taldearekin, eta 13:30ean **toka eta igel-toka** txapelketaren sari banaketa eta piskolabisa.



## Pailazoak eta dantzaldia izango dira Amañan uztailaren 1ean

Uztailaren 7, 8 eta 9an ospatuko dira aurten Amañako jaiak. Dena dela, jai-egitaraua astebete lehenago hasiko da. Horrela, uztailaren 1ean, zapatuan, **Pirritx, Porrotx eta Marimotots**-en urteroko bisita izango dugu Amañan. Ekitaldia 19:00etan hasiko da, eta amaitzerakoan **txokolate-jana** egongo da ume guztientzat. Txosnan **ogitartekoak** eta **pintxoak** ez dira faltako, 21:30etik aurrera, eta ordu horretan berbena hasiko da **The Orgininal DJ Guass 80**-ren eskutik.















# EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Sanjuan jai zoriontsuak!!

- KALITATEA PREZIORIK ONENEAN, TRATAMENDU GUZTIETAN
- ARRETA PERTSONALIZATUA, HURBILA ETA PROFESIONALA
- HAGINLARI KOLEGIATUAK, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIAREKIN
- ODONTOPEDIATRIA ZERBITZUA, HAURDUNALDITIK | KLINIKAN KONTSULTATU



R.P.S. 259/15
MAITANE G. IÑIGUEZ
ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA

**ZERBITZU GUZTIAK KLINIKAN BERTAN**

- ODONTOLOGIA OROKORRA
- HAUR-ODONTOLOGIA
- HORTZ ZURITZEA ETA ESTETIKA
- ORTODONTZIA
- PROTESI FIJOA ETA KENTZEKOA
- ZIRUGIA ETA INPLANTEAK

**SAN AGUSTIN KALEA, 4 BEHEA EZKERRA, 20600 EIBAR**

TELEFONOA 943 537 076    MUGIKORRA 688 884 808
www.eibarclinicadental.com    info@eibarclinicadental.com

## Egaña, Lizaso, Lujanbio eta Enbeita

# Kantabriako bertso-afariaren zilarrezko ezteietan

Primerako kartela eskainiko du aurten ere Arrateko bertso-afariak. Aurten, gainera, 25. urteurrena beteko du ...eta kitto! euskara elkarteak antolatzen duen ekitaldiak, herrian urtetik urtera bertsozale gehien biltzen duen saioan. Azken urteotan (urte askotan) kalerik egin ez duten Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña berriro izango dira gure artean, besteon afizio edo zaletasuna euren ofizioarekin asetzen. Lagunak ere ez dira halamoduzkoak, bertso munduan lehen lerroan dihardute bi emakume izango baitituzte: Maialen Lujanbio eta Onintza Enbeita. Azken honen debuta izango da bertso-afari horretan, baina Muxikakoak soberan erakutsi du badakiela halakoetara ondo moldatzen. Lujanbiok, bestalde, irailaren 7koa bere bederatzigarren saioa izango du Arrateetan. Lizaso hirutan ez da Kantabria jatetxean izan eta Egaña lautan; beste guztietan fin-fin etorri izan dira, gure artean sabela bete eta euren onena ematera. 1993an izan zen lehen bertso-afarian azaroan laga gintuen Juan Mari Narbaiza eibartarrarekin batera jardun zuen Angel Mari Peñagarikanok eta aipatutako Egañak eta Lizasok osatutako hirukoteak.



Sarrerak bazkideentzat uztailaren 3tik 14ra



Bertso-afaria irailaren 7an izango da, betiko moduan, gaueko 21:00etan hasita. Oraingoan Arrate bezpera eguenean jausiko da. Jakina, badago nahiko denbora orduraino; baina, oporrak tarteko, sarrerak lortzeko aukera murriztu ere egiten da eta komeni izaten da sarrerak lehenbailehen erostea, toki barik geratu aurretik. Hori dela-eta, antolatzaileek betikoari eutsi diote eta sarrerak salgai ipiniko dituzte uztailaren 3an. Egun horretatik eta hilaren 14ra arte, bazkideek bakarrik erosi ahal izango dituzte, iazko prezioan (31 euro), ...eta kitto!-ko bulegoetan eta honako ordutegian: 10:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00ak arte. Uztailaren 17tik aurrera ohiko lekuetan (Kultu eta Sagarbitza tabernetan eta Kantabria jatetxean) salduko dira 32 eurotan.












# Euskal Jaialdiak saio ederra eskaini zuen bere 24. edizioan



**...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik urtero egiten den Euskal Jaialdiaren 24. edizioa jokatu zen domekan** eta, urteroko martxan, parte hartzen egon ziren harrijasotzaile eta aizkolariek saio ederra egin zuten Untzagan. Jaialdiaren lehen zatian hainbat erakustaldi eskaini zituzten eta partehartzaileek berriz ere primeran islatu zuten herri-kirolen aberastasuna: Joseba Ostolazak eta Udane alabak aldi berean jardun zuten harriarekin, batak 175 kiloko zilindrikoarekin eta 30 kilokoarekin besteak. Ondoren, Landarbidek 115 kiloko harri baldarra altxatu zuen eta, jarraian, Karlos Aretxabaletak lasto-jasotzen jardun zuen. Iparraldeko jokoa amaitu eta jarraian aita-alabaren arteko desafioa ailegatu zen: esku bakarrarekin 100 kilokoa lau alditan jaso zuen aitak eta, parean, 11 urteko alabak 25 kilokoa zortzitan altxatu zuen. Ondoren, aizkolarien arteko desafioaren txanda izan zen: Jokin Alkizaletek 5 metroko altueran korte bi egiten zituen bitartean, Hodei Ezpeletak, Goizeder Beltzak eta Bihurrik osatutako hirukoteak esku bakarrarekin enborra moztu zuen eta beste hirukoteak (Zelaik, Txikonek eta Karlosek) gauza bera egin zuen, baina atxurrarekin. Jarraian 113 kiloko kubikoa eta ingudea jasotzen ibili ziren eta horren ostean etorri zen lehia nagusia, taldekako desafioa. Egin beharreko lana, berriz, honakoa izan zen: aizkorarekin sei korte, kortetik kortera bi jasoaldi harriekin edo plazari buelta bat txingekin eta, amaitzeko, antxitxiketan 15 buelta. Aurtengo txapelketan Ostolaza, Bihurri eta Jokin izan ziren nagusi eta eurek jaso zuten lehen saria. Bigarren taldea Karlos, Hodei eta Beltzarena izan zen eta hirugarrena Landarbide, Txikon eta Zelairena. Edozein modutan ere, denek jaso zuten kopa bana, baita Udanek ere.





**ASKETA S.L.**
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS

Zorionak eta ondo pasa jaiak!

- Teilatu eta Fatxadak
- Elektrizitatea
- Eskaiola eta Pladurreko lanak
- Sukalde / Bainugelak
- Iturgintza / Berokuntza / Gasa
- I.T.E.
- Pinturak
- Leihoak
- Aroztegia
- Igogailuak
- Iragaizketak
- Isolamenduak

ERAIKUNTZAKO MOTA GUZTIAK
AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
943 19 19 52 – Deba – Mendaro – Elgoibar
Eibar (Errebal 16)
asketa@asketa.net . www.asketa.net



# Eibar FT-ren filialak maila igotzeko itxaropenaz jokatuko du Astorgan

**Igoerako promozio fase bikaina dihardu egiten Lakanbrak zuzentzen duen taldeak** eta, oraingoari eusten badio (orain arte jokatutako bost partiduetan ez du golik jaso), datorren denboraldian 2. B mailan jokatuko du. Hala ere, ez ditu gauzak erraz izango domekan Ipuruan Atletico Astorgak argi erakutsi zuen moduan, partidu hasieran Ibargoienen gola jaso eta gero. Zapatuko partidua arratsaldeko 18:30ean jokatuko da, La Eragudina estadioan, eta Eibarrek 200 sarrera jarri ditu salgai 15 eurotan helduentzat eta beste hogei umeentzat 8 eurotan. Autobusa ere antolatu da Maragateriako herrira joateko eta dagoeneko lehenengoa bete dute.



*Vitoriak Ipuruan golik jaso gabe amaitu du promozio fasea.*



# Andaxeko brasildarrak Espainiako selekzioa baino gehiago izan ziren

**Bai behintzat Unbeko instalazioetan zapatu goizean jokatutako neurketan.** Brasilgo Andax taldeak 4-0 irabazi zion Espainiako selekzioari anputatuen artean jokatu den Salto Systems nazioarteko torneoaren bigarren jardunaldian. Hor hegoamerikarrek nagusitasun handia erakutsi zuten eta baita bezperan ere Durangon, baina Donostian domekan jokatutako azken jardunaldian Espainiako selekzioak lortu zituen emaitza onenak eta baita torneoa bereganatu ere.

# Datorren astean herriko saskibaloiak ateak zabalduko ditu kiroldegian

**Hasi 26tik, astelehenetik, eta 30era arte (barixakua) iraungo du ate zabaleko programa** horrek Ipurua kiroldegian, goizez 10:00etatik 12:30erako ordutegian, 2005 eta 2009 urteen artean jaiotakoentzat. Katu Kale 1173 Saskibaloiak "mini" mailako talde bi sortu ditu azken hilabeteotan eta aukera izan zuten eurentzat lehen torneoa izan zena jokatzeko Beasainen. Txikienek, benjamin mailakoek, lau partidu jokatu zitzuten eta bat berdindu zuten; eta lehen urteko alebinek hiru neurketa izan zitzuten eta baten irten ziren garaile. Batzuk zein besteek azken unera arte lehiatu zuten partidu guztietan.



# Cuevasek irabazi bai, markarik ezin



**Asier Cuevas korrikalariak garaipena lortu zuen aurreko zapatuan** 50 kilometroko Ciudad de Santander proban. Bosgarren kilometrorako aurretik zihoan, eta 3:05:27 denbora egin zuen helmugan. Hori bai, nahikoa egin zuen proba amaitzearekin, berak zioen moduan *"proba gogorra izan delako, %100eko hezetasuna eta haizea tarteko"*. Berak du Espainiako marka, Santanderrekoa baino zortzi minutu hobeagoa.

caracil seguros
**CARASA, CILVETI, LACORT y CIA – Aseguru-Artekaritza**
**JUANJO IRIGOIEN**
Juan Gisasola, 6 - behea
Tfnoa. 943 70 29 98 Mobila. 679 517 859 eibar@caracil.com
**Esperientzia eta kalitatea dira gure oinarriak**

## Eibarko Txirrindulari Elkarteak denboraldia amaitu zuen San Juan Sariarekin




**Gure herriko elkarteak domeka goizean jokatu zen junior mailako probarekin** itxi zuen aurten antolatutako proben egutegia. 104 txirrindularik hartu zuten parte Gipuzkoako txapela jokoan zen 98 kilometroko proban eta, garaipena esprintean jokatu zutenen zortzi lagunen artean, Limousin Kartoiak-Oriako taldeko Unai Iribar nagusitu zen, orduko 40 kilometro eta erdiko bataz-bestearekin. Taldekako sailkapena Ampok irabazi zuen, mendia Jokin Sarasolarentzat izan zen eta bailarako onenaren saria Ciclos Iturriagako Imanol Alvarezek bereganatu zuen. Sariak banatu aurretik otsailean hildako Luis Pedro Santamarina txirrindulari-ohia omendu zuten. Familiak hark 1970ean irabazitako I. Euskal Herriko Itzuliaren kopa bueltatu zion Eibarko Txirrindulari Elkarteari.



*Santamarinaren familiakoek omenaldia jaso zuten.*

## Eibartarrak nagusi Urkiolako gainean

**Jose Mari Bernedo lehena izan zen helmugaratzen aurreko domekan Abadiñon hasi** eta, Atxartetik gora, Urkiolako santutegian amaitu zen mendi lasterketan. Eibartarrak 39 minutu eta 26 segundo behar izan zituen 600 metroko desnibel positiboa zuen proba amaitzeko. Ez zen bera eibartar bakarra izan podiumean, Igor Fernandez hirugarren sailkatu baitzen (42:15). Bero egin zuen, jakina, baina jendea azkar hasi zen lehen 4 kilometroak pista eta asfaltotik zirela aprobetxatuz; hori bai, handik aurrera aldapa gora izan zen dena.





## Kalamuako 18 judokek hartu zuten parte Gabiriako torneoan

**Dominekin itzuli ziren gaztetxo guztiak aurreko zapatuan:** Eneko Kortak, Alex Jimenezek, Kolde Estenagak, Zhe Ye-k eta Julen Martinek urrezkoa irabazi zuten, beste sei zilarrezkoarekin bueltatu ziren eta zazpi brontzezkoaz jabetu ziren. Guztira 150 neska-mutil izan ziren torneoan, Bilbo, Azpeitia, Zumaia, Arrasate, Ondarroa, Zumarraga eta Legazpia ordezkatzen, Eibar eta Gabiriarekin batera. Zapatuan, bestalde, badute non lehiatu Kalamuakoek: talde batek Santanderren jokatuko den taldekako XI. Bansander Torneoan hartuko du parte, beste batzuk gerriko beltza lortzeko Donostiara joko duten bitartean Euskal Federazioak prestatutako azterketa egitera.



# Plater tiraldia jokatuko da Arraten uztailaren 2an, Armagin Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko



**Mini-foso modalitateko plater tiraldia antolatu du Eibarko Sociedad de Tiro al Vuelok uztailaren lehen domekarako.** Goizeko 10:00etan hasiko da lehiaketa eta izena emateko 30 euro ordaindu beharko da. Tiraldia 30 platerera jokatuko da, kantxa bakoitzeko 15 platerekin. Armagin Elkartearen urrezko ezteiak ospatzeko torneoan tiratzaile bakoitzak izena ematerakoan egokitzen zaion zenbakia eraman beharko du eta, horren arabera, eskopeta bat, errefle bi, ehiza eta kirol jantziak, kartutxo-kaxoiak etabar zozketatuko dira sari banaketaren unean Arrateko tiro-zelaian izango diren artean.



# Asteburu betea izan zuten Deltecoko triatloilariek

**Zapatuan Lekeitioko sprint triatloian parte hartu zuen bederatzi atletez osatutako** Eibarko taldearen ordezkaritzak. Bizkaiko kostaldeko herrian izan ziren Maialen Zamakola, Jon Illarramendi, Roberto Gartzia, Ioseba Tamayo, Iñaki Serrano, Martin Irigoien, Alberto Agirre, Adrian Galan eta Jose Mª Artetxe. Logroñon, bestalde, distantzia luzeko triatloia jokatu zen eta han Iker Aranzibiak, Enrique Guruzetak eta Gonzalo Saezek osatutako hirukoteak hartu zuen parte.

# Odei Jainaga Ciudad Realen nagusitu zen azken jaurtiketarekin

**Ciudad Realen aurreko zapatuan jokatutako federazioen arteko Espainiako txapelketan,** laugarren eta azken jaurtiketan jabalina 74,29 metrora bidalita nagusitu zen Eibarko atleta. Kataluniak erraz irabazi zuen lehiaketan euskal selekzioak 8. postua lortu zuen. Odei Jainagak Espainiako selekzioarekin debutatuko du asteburu honetan Frantziako Lillen jokatuko den txapelketan.








San Juan jaiak aprobetxatuz, hainbat kirol ekitaldik hartzen dute herria. Azken asteburuan, esaterako, boxeoak, arkuak eta tiroak euren tokia izan zuten.

FRUTAS Y VERDURAS ZELAIA
Fermin Calbeton, 6 Tel. 943-048535
ZELAIA
Fruta eta barazki freskoenak esku-eskura! Aprobetxatu!!

667 221611
OSKAR
– OSTEOPATIA
– MASAJEAK
– OINETAKO REFLEXOLOGIA
Bidebarrieta, 64 (Oskar ileapaindegian)

# Ondo pasa Sanjuanetan!!


**ESTAZIÑO TABERNA**

Egunero 06:00etatik ZABALIK

GOSARIAK PINTXOAK AFARIAK
EGUNEKO MENUA ASTEBUKAERAKO MENUA

Estaziño, 16 943 229 704

**TUNEL-PE** bar

Plater konbinatuak
Pintxoak
Ogitartekoak

San Juan 3 ☎ 943 700 641

SOKOA EIBAR-ONDARRU

birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00

**SOKOA**






CAFETERIA **BAISI**

Urkizu 11, Behea - 943 53 08 16

Gora San Juanak!

eibar EZ DOK ROCK

BREWDOG POINT

4. urteurrena

Toribio Etxebarria 18. Eibar

**budá** Cáfe - Bar

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Razioak
Hanburgesak
Saltxitxa-ogitartekoak
Izozki-irabiatuak
Etxean egindako gofreak

San Juan, 1 943-535447





## Euskal dantzek bete zuten Untzaga barixakuan

**Ikasturte amaiera ezin koloretsuagoa egin zuten Kezka dantza taldekoek** aurreko barixakuan, Untzagan eskainitako saioan. Euskal dantzak ikasten dituzten 200 bat neska-mutilek koreografia ezberdinak erakutsi zituzten harmailak betetzen zituzten guztien aurrean eta, beste batzuetan bezala, euskal tradizioko dantzen aberastasuna agerian laga zuten.

## Jendetza batu zen Txaltxa Zelaian “Breaking Eibar” txapelketaren harira

**Aurreko zapatuan hirugarrenez jokatu zen Bboying eta New Style Txapelketak** jendetza erakarri zuen Txaltxa Zelairaino eta bat baino gehiago zur eta lur geratu zen lehiakideen salto, buelta eta bestelako dantza pausoak ikusita. "Breaking Eibar" izeneko txapelketa San Juan jaietarako girotzen joateko hasi ziren antolatzen eta urtetik urtera arrakasta handiagoa dauka.





## Untzagako jubilatuen musika eta dantzak Coliseoan

**Untzagako jubilatu etxeak antolatutako kontzertua hartu zuen** aurreko zapatuan Coliseo antzokiak. Emanaldian Untzagako abesbatzak, jubilatu etxeko gitarra taldeak eta Kaleetan Kantuz euskal dantza taldeak hartu zuten parte eta, urteroko martxan, ederto pasatu zuten ikustera joandakoek baita taula gainean zeudenek ere. Egunerako plana biribiltzeko, Arraten elkarrekin bazkaldu zuten.

## Komando Parrandak primeran girotu zuen Urkizu

**Aurreko zapatuan puzgarriak ipini zituzten Urkizuko parkean, San Juan jaietarako** girotzen joateko. Egin zuen beroaren eraginez beste batzuetan baino jende gutxiago ibili zen kalean, baina hala ere, arratsaldea Urkizun ematea erabaki zutenek ondo baino hobeto pasatu zuten Komando Parrandaren kalejirari esker, gezurrezko “udaltzainek” sirena eta hesi bat erabilita dena hankaz gora ipintzea lortu zuten eta.





# Carmen Paguey Abaitua

*I. urteurrena:* 2016/06/19

*“Betiko izango zara gure oroimenean, BETIKO GUREKIN”.*

ZURE FAMILIA



## Goruntz abesbatzak San Andres elizan kantatu zuen domekan

**Goruntz abesbatzak 25 urte bete dituela eta, aurreko domekan** San Andres elizan abestu zuen, 12:00etako meza amaitu eta jarraian. Abesbatzako kideek euskal kantuak eta habanerak kantatu zituzten. Goruntz abesbatzak Amañan agurtuko du ikasturtea, uztailaren 9an El Salvador elizan ospatuko den mezan.





## Untzagak jendez lepo egin zuen Gatiburekin

**Zapatu gauean Gatibuk Untzagan eman zuen kontzertuak jendetza batu zuen** eta, taldearen musikak erakarrita, adin guztietako jendeak egin zuen bat plazan. Beste batzuetan baino askoz handiagoa zen eszenatokiak argi-joko ikusgarriak erakusteko aukera eman zion talde bizkaitarrari eta emanaldiak pozik laga zituen guztiak.

## Musika Eskolako ikasleen emanaldiak azken txanpan

**Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek ikasturte amaierako agenda** bete-betea daukate aurten eta, Portalean urtero eskaintzen dituzten ohiko emanaldiez gain, aurreko asteburuan Untzagan kalejira eta kontzertua eman zuten. Eta San Juanak ailegatu aurretik beste emanaldi bat gehiago egiteko tartea hartu zuten atzo, rock taldeak Txaltxa Zelaian kontzertua ematen egon ziren eta.





## Paella-jan arrakastatsuarekin agurtu zen Garagardo Jaia

**Aurreko domekan itxi zuten Eibar Rugby Taldekoen Garagardo Jaia,** baina azken eguna izan arren Untzagako karpak ekitaldi berezia hartu zuen: Bizimina elkartearen aldeko paella-janak arrakasta handia lortu zuen eta jende asko animatu zen bazkarian parte hartu eta, bide batez, elkarteari laguntza ematera.

# FLORA ARANBERRI LASKURAIN



**3. urteurrena**: 2014-VI-21

*"Zure irribarria ta maittasuna beti dagoz gurekin"*

*ETXEKUAK*



## Primerako Berbalagunen afari-meriendia

**30 berbalagun baino gehiago batu ziren ikasturteari gero arte esan** eta hilabetez landu duten "Tribial Lehiaketako" emaitzak jaso eta talde irabazlea zein izan den jakiteko irrikitan. Aurtengo irabazlea Arrate, Juanan, Marimar, Enrike, Alberto, Mikel eta Virginiak osatutako taldea izan zen. Miren Ansola eta Mari Tere Munduatek ere Esther Galarzak egindako oroigarria jaso zuten, Berbetan egitasmoan hainbat urtetako jarduna omentzeko.





## Armeria Eskolako idazkaria izan zen Javier Gesalaga hil da

**Armeria Eskolan, Jose Antonio Arkotxa zuzendari zela idazkari kargua bete zuen** Javier Gesalaga San Martin astelehenean hil zen Gasteizen, 71 urterekin. Gasteizen bizi diren eibartarren taldeak pena handiarekin jaso du bere heriotzaren albistea eta, euren blogean gogora ekarri dutenez, *"ez ditugu inoiz ahaztuko San Andresetan egiten ditugun afarietara aintzinako abestiekin ekartzen hasi zen liburutxo haiek"*.

## Gurasoak Berbetanek jai giroan amaitu du ikasturtea

**Urkizuko parkean esan diogu agur Gurasoak Berbetan egitasmoari.** Joan den ostegunean eskulan- eta makillaje-tailerrekin ekin genion jaiari: kokomokoak egin genituen, marrazki bizidunetako pertsonaiarik gustukuenak margotu ere bai, baina betiko bezala ilararik luzeena makillajearen mahaian sortu zen: katuak, marigorringoak, tximeletak... denetarik ikusi zen han! Eta behin tailerrak amaitu eta gero, ARNO DJaren txanda izan zen. Xirimiriari aurre eginez, dantzarekin amaitu zuten bertaratutakoek jaia. Datorren ikasturtean ere bueltan izango da Gurasoak Berbetan egitasmoa, etxe-giroan euskeraren erabilera bultzatzeko helburuarekin indartsu bueltatuko da ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.

## Pagatxako emakumeek Leon eta inguruak bisitatu dituzte

**Pagatxa emakumeen elkarteak, urteroko martxan, ikasturtea agurtzeko txangoa** egin du. Orain dela egun batzuk egindako bidaian Leon eta inguruak (Astorga, Castrillo de Los Polvazales) ikusten ibili ziren. Besteak beste, hiriaren alde zaharra ezagutzeko tartea hartu zuten (XIII. mendeko katedrala, San Isidororen basilika erromanikoa...) eta Astorgan, berriz, katedrala eta gotzain-jauregia, Gaudik Kataluniatik kanpora eraiki zuen eraikin bakarrenetakoa ikusi zituzten.



www.etakitto.eus
ALBISTEAK KULTUR-AGENDA
KIROL-AGENDA BERBETAN

# Ondo pasa Sanjuanetan!!




MAIXA
ZEOZER DESBERDINA
Pintxoak
Kazuelitak
Ogitartekoak
Kazioak
Venezuelako platerak

GURIDI RUGBY
EIBAR RUGBY TALDEA
GORA SANJUANAK!!!

Ahara
Untzaga Plaza, Eibar
943 043 782

Bista Eder, 10
Portalea Jatetxea
"Eguneko Menua"
Afariak asteburuetan
(egunero enkarguz)
Pintxoak
Ogitartekoak



943 20 68 68
IGANDEETAN ITXITA

GORA Sanjuanak!!
Gosariak
Bokatak
Trinkete
EIBAR 1957
Pintxoak
Tragoak
Ospatu gurekin!!







Ondo pasa San Juan jaietan!!!
eta ondo baino hobeto gurekin
Untzaga, 8an

ESKARNE
JATETXEA
• eguerdiko menua
• menu bereziak
Arragueta 4 Tel. 943 12 16 50 20600 EIBAR




ETXEZ-ETXEKO ZERBITZU BERRIA
FOXTER-ek bere gastronomia bikaina etxera eramaten dizu, igande-ostegun bitartean, 20:00etatik 22:30era.
Animatu zaitez eta deitu!!!
razioak • sandwichak • hanburgesak • bokatak • mexikarrak
Plaza Barria, 6. Tel. 943 121 255

BUENOS AIRES
Toribio Etxebarria, 8




Toribio Etxebarria, 18 - 1.
CASINO ARTISTA EIBARRES
CASINO ARTISTA EIBARRES
Enkarguak hartzen dira
Telefonoa: 943 20 71 90

# Marcos Navarroren margolanak Kokojaten estudioan ikusgai



*Calbeton kaleko Kokojaten arkitektura estudioa artisten lanak erakusteko aurkeztu zen.*

**Uztailaren hasiera arte Marcos Navarro artistaren lanentzat erakustoki izango da Kokojaten, Calbeton kalean Nestor Perez Valenciaga eibartarrak** duen arkitektura estudioa. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arteuparterekin lankidetzan sustatu duen "Local Art Pareta" izeneko ekimenari esker, Gipuzkoako hogeitabat artista plastiko gaztek euren obra beste horrenbeste merkataritza lokaletan erakusten dihardute eta Bartzelonan orain dela 30 urte sortu zen artistari bere lanak Eibarren ezagutzera ematea egokitu zaio. Artista bakoitzak lau lan jarri ditu ikusgai eta Navarrok lau margolan aukeratu ditu: *"laz Bartzelonan ipini nuen erakusketan ikusgai egon ziren lanak dira, `Binomio´ izeneko proiektuko lau koadro. Nere margolanetan naturak eragin handia izaten du eta Eibarrera ekarri ditudan hauetan gizakiok naturari nola eragiten diogun islatzen ahalegindu naiz. Egurraren gainean margotu ditut, akrilikoarekin"*. Artistarentzat esperientzia aberasgarria izaten dihardu eta, bere berbetan, *"ezagutzen ez nuen toki berri batera gerturatzeko bidea"* zabaldu dio. Bere estudioa artelanak erakusteko eskaintzera animatu den arkitektoa ere pozik dago, baina jendea lokal barrura sartzera animatzeko kartel edo bereizgarriren baten falta somatzen du, *"pasatzen direnetako askok kristalaren beste aldera begiratu arren, ez dira ausartzen barrura sartu eta gertutik begiratzera. Izan ere, hemen ez gaude ohituta horrelako kontuekin"*. Aldundiaren deialdian hautatutako 21 artisten artean, bestalde, Maria Romero Laspiur eibartarra eta Ainize Txopitea, Daniel Txopitearen alaba daude. Bi hauen lanak Donostian ipini dituzte ikusgai.

Ekimena agurtzeko, artistak eta euren lanak bildu eta jaialdia egingo da Trintxerpeko Ziriza etxean, horren harira antolatuko dituzten hainbat jarduerarekin batera. Honi buruzko informazio guztia www.localartpareta.com helbidean sareratu dute eta, besteak beste, Local Art Paretaren lehen edizio honetako erakusketa espazioak kokatzeko mapa interaktiboa dago eskuragarri.

# Aurten ere sorbak bedeinkatzeko meza egingo da Azitainen

**Zapatuan 11:00etan meza berezia ospatuko da Azitaingo elizan, San Juan eguna dela eta**, ohitura zaharrari jarraitu eta sorbak bedeinkatzeko. Izan ere, herriko baserrietan sorbak egiteko ohitura dute askok gaur egun ere. Antzina, sorbak bedeinkatzera Arratera joaten ziren, gero Ospitaleko kaperara eta gaur egun Azitaingo elizan bakarrik bedeinkatzen dira. Eta badago elizara joan barik ere, San Juan bezperan sorba kanpoan laga eta, ilargi amandreari begira jarrita, ihintzarekin bedeinkatzen duenik ere. Edozein modutan ere, sorba gorde egiten da hurrengo urteko Sanjuan sura botatzeko. Udako solstizioari lotutako tradizioa da eta, aspaldi, bedeinkatutako sorbak baserrietako atean gordetzen zituzten urtebetez, erretzera botatzeko eguna ailegatu bitartean baserriak zein animaliak ekaitzetatik babesteko.



# Estaziñoko Ariel etxea familia-zerbitzuetarako erabiltzea eskatu du EH-Bilduk



**Estaziño kalean, San Agustin eliza aldamenean dagoen Ariel Etxea zerbitzu publiko** zehatz baterako erabiltzeko eskatu dute EH Bilduko ordezkariek alkatetzan, etxe horren erabilera erreklamatzeko eman beharreko pausoak eman ditzan. Etxearen jabea Gipuzkoako Foru Aldundia da, baina elizari lagata dago. Bildukoek diotenez, *"Aldundiak erabilera kontratua beste hamar urtetarako berritu zuen elizarekin 2015eko abenduan, baina elizak ez dio erabilerarik ematen Ariel Etxeari"*. Gauzak horrela, EH Bilduk zerbitzu publiko zehatza ematea planteatzen du, *"harrera familien eta hauekin dihardunten profesional eta familia biologikoen arteko elkarlanerako errekurtso bezela edo banandutako familien elkargune puntu bezala, adibidez"*.

## Sanjuanetako pilota jaialdia aurten 25ean

**Juan Martinez de Irujo pilotariari hilaren 24an Iruñan agur omenaldia egingo diotenez,** Astelenako San Juan jaietako pilota jaialdia egun bat atzeratuko da aurten eta San Juan Txiki egunean jokatuko. Partidu nagusian Jokin Altuna eta Danel Elezkanoren arteko buruz-burukoa izango da kaiolaren barruan. Lehen partiduan Ezkurdia eta Lasa IV.ak Mendizabal III.a eta Tolosari egingo diete aurre, eta azkenekoan Ugalde-Martinez eta Errandonea-Merino bikoteek neurtuko dituzte indarrak.



## Aritz Iriondo foball-7ko epaileari elkartasuna adierazi zioten Unben



**Aritz Iriondo epaileari elkartasuna adierazteko ekitaldia egin zuten martitzen** iluntzean Unben, txapelketan parte hartzen ziharduten talde guztiek eta Elgoibarko eta Eibarko Kirol Patronatuetako arduradunek. Aurreko asteko eguaztenean Bailarako XX. Foball-7ko Torneoaren barruan jokatzen ari zen partiduan, 18 urteko Aritz Iriondo Elgoibarko epailea Mendaroko ospitalean ingresatu behar izan zuten berak adierazitako penaltiaren eta ateratako txartel gorriaren ondoren zigortutako jokalariak aurpegian ostikada eman ziolako eta, ondorioz, epaileak konortea galdu zuelako. Gertatutakoa eta gero, *"torneoaren edizio hau bertan behera lagatzea"* erabaki dute antolatzaile eta parte-hartzaileek, "Aritz Iriondorekin bat egiten dugula adierazteko". Eibar eta Elgoibarko Foball-7 Torneoko antolatzaile eta talde parte-hartzaileek adierazi dutenez, *"gertatutakoa gogorki gaitzetsi eta arbuiatu nahi dugu, deitoratuz gertatutakoak arriskuan jartzen duela torneoaren jarraipena, jakinda, gainera, bere helburuetako bat kirolean kidetasuna eta errespetua sustatzea zela"*. Torneoaren epaileekiko elkartasuna eta kidetasun adierazteko, martitzenean partidua jokatu zuten Unbeko zelaian, talde parte-hartzaile guztiek eta Eibarko eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatoen parte-hartzearekin.



TUTULUMENDI




IDURRE IRIONDO

## Toribio Etxebarriaren liburu biren edizio kritikoak lantzen dihardu Ego Ibarrak

**Miren Narbaiza Martiartu eibartarra Toribio Etxebarriaren "Viaje por el país de los recuerdos" eta "Arratetikakuen izketango alegiñak"** lanen jatorrizko testuak jorratzen beharrean aritu da, gerora begira edizio kritikoa kaleratzeko asmoz. Izan ere, Ego Ibarra batzordeak lehen liburu horren edizio kritikoa kaleratu nahi du datorren urtean, *"idazleak egin zituen bertsio biak konparatuta eta behar diren ohar eta aipu guztiak jasota; aurkibide toponimikoak eta onomastikoak barne"*. Horretarako, aurten, lehen faseari ekin dio Miren Narbaizak, obra horien transkripzio lana eta hasierako azterketa eginez.

Horrez gain, "Arratetikuen izketango alegiñak" lanaren jatorrizko testuaren transkipzioarekin ere lanean hasi da. Ego Ibarra batzordetik azaldu dutenez, *"Toribio Etxeberriak 1949an idatzi zuen 'Viaje por el pais de los recuerdos' liburuaren lehenengo bertsioa, baina, nonbait, ez zen konforme geratu eta 1959an lanaren bigarren bertsio bat egin zuen, liburuki bitan banatuta: lehenengo zatiak 411 orrialde zituen, eta bigarrenak 381. Lan hori Mexikon argitaratu zen 1968ko urrian, Toribio hil ondoren; tirada 500 alekoa izan zen. Ordutik hona argitalpen hura erabili du Udalak 1990an eta 2004an kaleratutako lanetan. Bigarren liburua, berriz, Zarauzko Itxaropenak eman zuen argitara 1967an. Liburu horren zati batzuk zentsuraren hatzaparretan geratu zirenez, beharrezkoa da edizio kritikoa egitea eta, horregatik ekin diogu lan horri"*. Lantzen ari diren jatorrizko obra horiek Olga Arizmendiarrietak eta Yraolagoitia-Iraola familiak emandako donazioetatik ailegatu zaizkie.


*Toribio Etxebarria eta Claudia emaztea.*
**Maite Ferran Echeverria**




## "El futuro es la memoria" Alzheimer gaixoen zaintzaileen aldeko martxa

**Alzheimer gaixoak zaintzen dituztenentzat formaziorako programa garatzeko** asmoz, ekainaren 10ean abiatu zen Cadizetik hilak 25ean Bilbon amaituko den "El futuro es la memoria" izeneko martxa eta Eibarrera San Juan egunean, ekainaren 24an ailegatuko da, 13:30ak aldera Untzagara. Lasterketari esker lortzen duten dirua zaintzaileen formaziorako erabiliko dela argi laga dute antolatzaileek eta, euren asmoari jarraituz gero, jasotako 100 euro bakoitzeko zaintzaile bati formazioa emateko aukera izango dute. Lasterketan parte hartzeko zein proiektuari laguntza emateko hainbat aukera dago eta horien inguruko informazio guztia interneten eskuragarri dago, elfuturoeslamemoria.com helbidean. Klub Deportiboak ekimenarekin bat egin du eta, horregatik, jendea parte hartzera animatu nahi dute. Azaldutakoaren arabera, Asier Cuevasek Elgoibartik Eibarrerako zatian hartuko du parte. Informaziño guztia interneten, elfuturoeslamemoria.com helbidian dago.

## Gure Balioak-erako hautagaiak uztailaren 16ra arte aurkeztu daitezke

**Debegesa garapen agentziak Gure Balioak Sarirako hautagaiak proposatzeko epea zabaldu du.** Zortzigarren edizioa izango da aurtengoa eta, aurreko guztietan bezala, sariaren asmo nagusia Debabarrenean giza balioen sustapenean nabarmendu den pertsona edo entitatearen jarduna publikoki aitortzea da. Hautagaiak aurkezteko epea uztailaren 16an amaituko da eta, egun horren aurretik, Gure Balioak Saria jasotzeko merezimendua duen pertsona edota entitatearen hautagaitza aurkeztera gonbidatu nahi dute jendea. Oinarriak eta hautagaia aurkezteko bete beharreko orria debegesa.eus webgunean daude eskuragarri eta, orria bete ondoren,, balioak@debegesa.eus helbidera bidali behar da.







Azkenean atzo egin zuten Iturburu Ikastolan **XX. Kirola Euskaraz Bizi jaialdia**, hilaren 3an eguraldi kaxkarra tarteko bertan behera laga behar izan zutena. Gurasoak falta, jakina, baina bikain pasa zuten




**Eguaztenean egin arren, Ikastolako neska-mutilek aukera izan zuten ANDER ROMARATE eta MARKEL ALBERDI gertutik ezagutzeko.**














# Kirola Euskaraz Bizi , Olinpiada Handia 2017



2017ko ekainaren 21ean

## telefono jakingarriak

SOS deiak................................*112*
Pegora......................................*010*
Udaletxea ..................*943 70 84 00*
Portalea.....................*943 70 84 39*
Udaltzaingoa.............*943 20 15 25*
Mankomunitatea.......*943 70 07 99*
Debegesa ..................*943 82 01 10*
KIUB .........................*943 20 38 43*
Epaitegia ...................*943 03 34 00*
Iberdrola....................*901 20 20 20*
Naturgas....................*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak.........*943 46 46 22*
Gurutze Gorria..........*943 22 22 22*
Mendaro osp.............*943 03 28 00*
Anbulategia...............*943 03 25 00*
Torrekua ....................*943 03 26 50*
Errepideak.................*902 11 20 88*
Ertzaintza ..................*943 53 17 00*
Eusko Tren................*902 54 32 10*
Lurraldebus ..............*900 30 03 40*
Pesa...........................*900 12 14 00*
Taxiak ........................*943 20 30 71*
.................................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon............*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen.........*650 26 59 63*

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## hildakoak

- **Lucas Rivero Paniego.** 89 urte. 2017-VI-18.
- **Maria Alberdi Aizpuru.** 87 urte. 2017-VI-20.

## jaiotakoak

- **Alazne Esparza Muñoz.** 2017-VI-2.
- **Alex Rodriguez Figueroa.** 2017-VI-13.
- **Arene Lizarralde Soria.** 2017-VI-16.
- **Aadip Chapagain.** 2017-VI-17.
- **Mikel Etxaide Iturre.** 2017-VI-17.
- **Mª Fernanda Cuadra Martinez.** 2017-VI-17.

## farmaziak

Eguena 22
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Barixakua 23
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Zapatua 24
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Domeka 25
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Astelehena 26
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Martitzena 27
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Eguaztena 28
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Eguena 29
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
Barixakua 30
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**UZTAILA**
Zapatua 1
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Domeka 2
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Astelehena 3
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Martitzena 4
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Eguaztena 5
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Eguena 6
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
Barixakua 7
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI -2017AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

## Erakusketak

**Ekainaren 30era arte**

– JUAN QUESADAren argazkiak.
*Klub Deportiboan.*

– BAKARNE ELEJALDEren argazkiak.
*El Ambigú tabernan.*

– PEDRO ARRIOLAren argazkiak.
*Portalea jatetxean.*







## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | 3 | | | 5 | | | 6 |
| 9 | | | | | | | | 2 |
| | 4 | 8 | 1 | | | | 7 | |
| | | 2 | | | | | | |
| | 5 | | 9 | | 6 | | 3 | |
| | | | | | | 1 | | |
| | 6 | | | | 9 | 7 | 5 | |
| 8 | | | | | | | | 1 |
| 2 | | | 5 | | | 6 | | 9 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 8 | 9 | 7 | 3 | 4 | 1 | 2 | 6 |
| 7 | 2 | 4 | 6 | 5 | 1 | 8 | 3 | 9 |
| 6 | 3 | 1 | 9 | 2 | 8 | 7 | 4 | 5 |
| 5 | 6 | 1 | 4 | 8 | 3 | 9 | 1 | 2 |
| 3 | 5 | 2 | 1 | 9 | 7 | 6 | 8 | 4 |
| 4 | 1 | 8 | 5 | 6 | 2 | 9 | 7 | 3 |
| 8 | 4 | 5 | 2 | 1 | 9 | 3 | 6 | 7 |
| 2 | 9 | 3 | 8 | 7 | 6 | 4 | 5 | 1 |
| 1 | 7 | 6 | 3 | 4 | 5 | 2 | 9 | 8 |

AURREKOAREN EMAITZA

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**

laztanak emoten...
943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



Zorionak, ARATZ, gaur 2 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko bihurrixari famelixaren eta, batez be, ARAIAren partez.



Zorionak, LORE Velazquez Casado, hillaren 26xan 2 urte egingo dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JULENE!!!, bixar 11 urte beteko dozuzelako. Segi holako alai. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ALAITZ, gure printzesak bixar 10 urte beteko dittu-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez.



Ongi etorri, MIKEL Bustinduy, hillaren 6ttik gure artian zagoz-eta. ANE, amatxo eta aitatxoren partez.

Zorionak, MAIALEN, hillaren 28xan zazpi urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



# Guinnessaren ekitaldirako informazio praktikoa




Guinnesserako ekitaldiari begira, parte hartuko dutenentzat informazio praktikoa banatu du Eibarren AKEBAI plataformak, zalantzak argitzeko asmoz hainbat datu zehatz eta aholku zabalduta. Guinness errekorra lortzeko gaur koloretako mosaiko erraldoia osatuko dute 2.500 lagunek Untzagan, udaletxe pareko plazan. Horretarako koloreetako kamisetak eta txapelak erabiliko dituzte parte-hartzaileek eta material hori Untzagan banatuko dute antolatzaileek. Diotenez, *"oso erraza izango da. Etorri ongi pasatzeko gogoz, ez duzu besterik beharko! Ekitaldi guztian zehar, aurkezleek eta 100 boluntariok esango digute zer egin beharko dugun (noiz sartu, noiz jantzi arropa, noiz mugitu,…). Segi euren instrukzioak eta lasai egon, oso erraza izango da eta".*

**Arratsaldeko 18:00etan irtengo dira auzoetatik** Untzagara joateko kalejirak. Auzotarrak euren auzoetan batuko dira, musikaz lagunduta, eta denak elkarrekin Untzagarantz joango dira. Urkizu-Azitain auzokoak Urkizuko parkean batuko dira, Urki-Ipuruakoak Ubitxako parketxoan eta Amaña-Legarrekoak, berriz, Legarreko frontoian. Ondoren, 18.30ean Untzaga inguruan biltzen hasiko da jendea eta Guinness errekorra gainditzeko prestakuntzari ekingo zaio: *"Koloreetako kamisetak eta biserak banatuko ditugu, eta koordinatzaileek, taldeka, irudia osatzeko beharrezko diren instrukzioak emango dituzte.* ***Urkizu-Azitain auzokoek kolore urdina*** *jantziko dute eta Toribio Etxebarrian banatuko diete materiala.* ***Urki-Ipuruakoak larrosa kolorea*** *eramango dute soinean eta Fermin Calbeton kalean jaso beharko dituzte gauzak. Eta* ***Amaña-Legarrekoek laranja kolorea*** *irudikatuko dute eta horiei Ego Gainen emango diete jantzi beharrekoa".* Horrez gain, erdigunekoak eta umeak kolore zuria izango dira eta horientzat materiala Untzagako harmailetan banatuko dute. Jantzi beharrekoak banatuta, 19.00etatik 20:00etara hasiko da jendea Guinnesserako irudia sortzen, *"lehenengo koloreak eta, pixkat geroago, zuriak".* Guinness errekorra 20:00etarako lortzea dago aurreikusita eta, horren ostean, 21:00ean Txosnagunean ospatzeko aukera izango da, Erokomerirekin.

# iragarkilaburrak

Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

– Pisua alokagai Deban uda osorako, Itsasbegi kalean. Igerileku, frontoi eta garajearekin. Tel. 635-730841.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-649850.
– Pisua alokagai San Kristobal auzoan. 2 logela, egongela eta sukaldea. Dena jantzita. Egoera oso onean eta sartzeko moduan. Tel. 677-865362. Alex.
– Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan Urkizu inguruan. Tel. 600-355206. Marialu.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Opel Corsa Diesel salgai. 5 ate, 60cv. 93.000 km. Deitu 19:00etatik aurrera. Tel. 656-758793.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Martxan dagoen ileapaindegia traspasatzen da Juan Gisasola, 8an. Tel. 688-822007 eta 943-530000.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-613245.
– Gizona eskaintzen da tabernan ontziak garbitzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 616-328060.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 680-203613.
– Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-026510.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 680-981704.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. Tel. 658-310620.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Orduka. Tel. 631-417922.
– Emakumea eskaintzen da pegorak, soziedadeak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 622-623216.
– Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 634-446252.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 632-166357.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Interna. Tel. 612-482203.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez eta ospitalean ere. Tel. 631-655390.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 629-889465. Miren.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-252150.
– Mutila eskaintzen da igeltsero eta margotze lanean jarduteko. Tel. 642-650816.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauez eta asteburu eta jai-egunetan. Tel. 642-650900.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 688-818176.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrian lan egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 645-891307.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 661-025434.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-152685.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta sukaldean laguntzeko. Tel. 619-339881.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, astelehenetik ostegunera. Tel. 631-395471.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Gauez eta asteburuetan ere bai. Tel. 697-665452 eta 632-978022.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-573554.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 632-174225.
– Neska euskalduna eskaintzen da ospitalean zaintza eta laguntza emateko. Tel. 688-639371.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-043190.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta bestelako lanetarako. Tel. 658-458061.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-253216.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-260072.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 636-154967.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 686-561811.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 642-249818. Gloria.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 612-204426.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuetan ere bai. Orduka. Tel. 633-101852.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuetan ere bai. Orduka. Tel. 631-282203.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo elbarrituak zaintzeko. Formazioa eta esperientzia. Tel. 649-309606.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak (pisuak, bulegoak, pegorak, tabernak) egiteko. Tel. 632-426847.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 5 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-397484.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 659-908513.
– Gizona eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean. Tel. 631-414397.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 634-256471.
– Neska euskalduna eskaintzen da pegorak eta soziedadeak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 655-094780.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 603-683176.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 631-229025.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 633-545148.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-038682. Isabel.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientzia ileapaindegian. Tel. 652-587259.
– Neska euskalduna eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Tel. 686-925897.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketak egiteko. Tel. 689-571882.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 667-357190.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta banatzaile moduan. Tel. 602-156712.
– Gizona eskaintzen da margolari eta igeltsero moduan aritzeko. Tel. 631-618184.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 612-493242.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 620-391779.

### 4.2. Langile bila

– Ileapaintzailea behar da Eibarko ileapaindegi batean. Lanaldi luzerako. Tel. 653-012186.
– Kamarera/o euskalduna behar da Arrateko jatetxe batean lan egiteko. Tel. 943-208859 eta vcorada@gmail.com
– Ileapaintzailea behar da egun osorako Eibarren. Esperientziarekin. Abuztuan oporrak izango lituzke. Tel. 619-928881.
– Pertsona euskalduna behar da irailetik aurrera umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 615-737483.
– Pertsona euskalduna behar da umeak eskolara eramateko. Tel. 622-004049 eta idatzihona@gmail.com
– Sukaldari-laguntzailea behar da asteburuko jatetxe batean. Autoa izatea baloratuko da. Tel. 620-810120.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailetako Matematika, Fisika etabarretako klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak eta 2/3 ikasleko taldekoak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

**Gozatu betidanik nahi izan duzun ekipamendu guztiaz.**

Hyundai Tucson Kosmo Edizio Berezia lurrera heldu da sinestezinezko ekipamenduarekin eta beste galaxia bateko 5.550€-rainoko deskontuarekin. Horren barne daude:

- Ukimen-pantailaz lagundutako nabigazio-sistema.
- Abiarazteko botoia eta gertutasun-detektorea dituen giltz adimenduna.
- Nahigabeko errail aldaketarako sistema eraginkorra.
- Aparkatzeko atzeko kamera gida eraginkorrekin.
- Euri, argi eta aparkatzeko sentsorea, aurrean eta atzean.
- 19 pulgadako aleaziozko uztaiak.
- Berotu daitezkeen bolantea eta jarlekuak.

Eta betiko moduan:

- **5 urterako bermea, km mugarik gabe.**
- **5 urterako laguntza errepidean.**
- **Gainera, zure Hyundaik ez bazaitu konbentzitzen, itzuli egin dezakezu inolako konpromisorik gabe.**

Galdetu baldintza bereziengatik zure kontzesionarioan.




OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

**ELGOIBAR** Olaso Polig., 17 943 74 14 80

**OIARTZUN**
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

**BEASAIN**
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

**IRUN**
Juan Thalamas, 43
943 63 97 69

HYUNDAI

5 Años Garantía sin límite de km

Hyundai Tucson Kosmo gama: CO2 emisioak (gr/km): 119–175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6–7,5.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan Tucson 1.7 CRDI 115CV (84,6kW) BD 4X2 KOSMOrentzat, 5.550€-rainoko deskontuarekin. BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldatu Plana aplikatu daiteke erabilitako auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Cinking Solución Flexible produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Santander Consumer EFC S.A-ren bitartez, 15.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2017/06/30era arte da baliozkoa. Ikusten den modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziazioari lotua. * Hyundai Motor España S.L.U-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak saldutako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.




*Betidanik esku onetan!*

**Isasi, 20**

943 20 17 33
650 71 03 36
629 48 15 92
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com






20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure irribarrea zaintzen.



Zure irribarre onena geure laborategian diseinatzen dugu.

RPS 53/13

bista eder
clinica dental - hortz klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar